



Azterketa literarioak

Hagiografiatik kolonizazioaren legitimaziora (Arratsalde bat Auñemendiko Lorearekin) (II)

PATXI SALABERRI MUÑOA

*Tra noi si discute piú che altro
per tenerci in esercizio*

C. Pavese

zuk eta nik hutsa leitu dugun liburua

A&P

*eta sabela uzkurtu zitzaidan ulertu nuenean zein aurkako
izango nuen mundua aurrerantzean*

J. Updike

0.- Egungo gizarteak bor-bor dirakiten *gatazkaren* eta *errelatoaren* gaiak arreta bereziz hartu nahi dituen honetan ez dator gaizki gogoratzea aspaldi ekin zitzaiola gurean erronka horren jorratze literarioari, eta bereziki XIX. mendearen amaierako idazlan zenbait hasi zirela bere orrialdeetan gai horien inguruko interesak eta laztasunak islatzen, eta era aski berdintsuan, gainera, eraberritze-lehian ziharduten genero guztietan.

Are gehiago: honako artikulua honen sakapean izanik, oroitarazi beharra dago gure narratiba larriak hastapeneko obran bertan jaso zuela gai nagusitzat egungo lazkaren –gatazka politikoaren, esan nahi baita– sustraian datzan eta oraindik orain irmo daragion errealitatearen auzia. Eta berriaz diogu “jaso zuela”, eta ez “heldu ziola”, zeren oraino

ez baita argi geratu zinez “heldu” nahi ote zitzaion gaiari ala *gidoiaren* eragin hutsez iritsi zen haren isuria fikzioaren orrialdeetara.

Baina jarraian ubideratzen saiatuko garen eztabaida hori gorabehera, kontua da euskal munduak garai historikoetan jasan duen lehen kolonizazio- eta akulturazio-prozesu eskergenaz eta hedatuenaz diharduela aurreneko euskal eleberririk bete-betean. Eta horrek, bistan da, jostepuntu egokia eskaintzen digu aurrekotik¹ gordeak genituen gaiei segida emateko, batik bat “euskal” izendapenarekin datozkigun gatazka eta errelatoarenari eta horien trataerak sorrarazten dituen arazo zenbaite-nari.

1.- Orrialdeotan hizpide dugun *Auñemendiko Loreara* gerturatuz, bada, has gaitezen aurren-aurrenik hutsalkeria dirudien zerbait mahairatzen, hots, ez zuela Agirreren lehen eleberririk hark, ez orduan eta ez gero, inolako arrakastarik izan agizko irakurleen artean².

Eta ez zitzaien beharbada arrazoirik falta Lhanderi, Onaindiari eta besteri, porrotaren alderdi pisutsuenetako bat hautatutako gaiaren inguruan aurkitu uste zutenean. Horrexek ematen baitzuen, ziurrenik, azaleko arrazoi identifikagarriena; baina, lausoago agertu arren, aho mikatza goa utzi behar izan bide zion orduko irakurleari –honatx frogatu beharreko hipotesia– beste zerbaitek, askoz larriagoa zen beste ezaugarri bat islatu baitzuen euskal narratiba sendoaren estreinaldia egitera iritsitako eleberririk mardul hark: istorioaren harian lazkatutako ikuspuntu eta trataera ideologikoa alegia, eleberraren norabide aldagaitzari –hagiografia baten burutzapenak ez baitu irudimen askerako toki lar

[1] Ikus artikulu honen lehen atala: Salaberri 2016.

[2] Besterik pentsatu ahalko balitz ere, inoren kuriositatearen eta erdal aldizkariren baten testu-premien seinale hutsa zen –baina ez arrakastarena– Agirrek Azkueri eleberria argitaratu baino egun batzuk lehenago idatzitakoan atzematen dena: “¿Qué hay de *Riktrudis*? Como ni “Euskalzale” ha dicho una palabra, ni tú me has escrito acerca de esa pobre hijuela mía [...] Si, como presumo, no te gusta la noveluca, remíte[me]la por favor para que corregida y aumentada y traducida, vea la luz pública en San Sebastián, de donde me piden” (ik. Gartzia Trujillo 2008, 36; gurea da letra etzana [aurrerantzean: g.l.e.]). Era berean, eta tinte folklorikoak gorabehera, ustezko arrakastagatik bainoago, obrekiko hurbiltasun ideologikoagatik etorri zitzaion Agirreri eleberria “Comunión Tradicionalista”-ko *El Correo Español* agerkari karlistan argitaratzeko gonbita, 1909ko gutun batean zioen bezala, “aquel periódico madrileño” interesatuta baitzegoen *Kresala* eta *Auñemendiko Lorea* eleberrien gaztelaniazko itzulpenak atalka (“como folletín”) kaleratzeko (*ibidem*, 115).

uzten³– irakurleak ezin espero zezakeen taxu partikularra emango ziona, azken batean. *Gatazkaren errelato* esperogabea, bestela esanda.

“Banbalinen artean eta fikzio erromantikoaren atze-oihal gisa *historiaren zehar-interpretazio bat eskaintzea*” (García Gual 1999, 148; gureak dira itzulpena eta letra etzana) bilatu nahi izan balu ere, hein handi batean, apaiz gisara zekarren sinesmenaren lehenesteak berak korapilatu zuen Agirreren *errelatoa*, nekez salba zitekeena salbatu nahi izan baitzuen Riktrudisen jokamoldea XX. mendeko euskaldunentzat eredu-garri jarri nahi izatean⁴.

Ezin da, gainera, ahantzi printzipioz Agirrek berezkoen izan zitzakeen irakurleak, prestakuntzagatik adina motibazioengatik behinik behin, *bizkaitar* sentsibilitatearen giza-taldekoak baino ezin izan zitezkeela nagusiki. Haiek ziren, izatez, “literatura nazionala”-ren aldeko aldarria egiten hasiak zirenak. Gogoratu beharrik ez dago nola hiru urte lehenago Sabin Arana Goirik berak goraiatu eta euskal antzerki nazionalaren sorrera-lantzat bataiatu zuen *Vizcay’tik Bizkai’ra*. Agirreren adiskidearen antzezlan, hain zuzen.

Baina une haietan, Azkueren adiskidea, ageriko buruhauste politikoetara emanegia ez zirudiena⁵, beste inon baino erosoago zebilen karlismo atzerakoienaren aterpean⁶. Beraz, baldin oso faltsua ez bada Eleizalde hartaz irudikatutako nortasuna⁷, ozta-ozta pentsa liteke idazle

- [3] Eta horrezaz gainera, ikusi dugun bezala, santa baten ustezko bizitzaren derrigorezko irudikatze-errepresentazio literalak talka eta mugimendu larriak sor ditzake eleberriak berez irekitzen dituen aukera alegoriko-metaforikoen garapenean.
- [4] Eleberriaren ohar batean aitortu bezala, “ez neuke gura neure Eliza Ama Done Maite Bedeinkagarriari ondo ez derizkion gauzarik txikiena erakutsi: lenago il” (Agirre 1898: 1986, 120 or.).
- [5] Bere burua “zuhur” gisakotzat zeukan etxe barneko etsaien aurrean: “Hemos quedado en reunirnos pronto los del bloc de los sensatos en San Sebastián o en San Juan de Luz” (1909.03.11ko gutuna: Gartzia Trujillo 2008, 125).
- [6] Ez zen urruti Agirre 1893an, Zumaiaiko moja-komentuan kapilau zelarik, Donostian kaleratutako *El Cántabro* aldizkari karlistak lehen alean jaso zuen aldarrikapen hartatik: “Consecuentes con nuestros principios, defenderemos *El Poder temporal del Papa*, la Unidad católica, la reivindicación del régimen foral (legue zarra) y su corolario, la descentralización administrativa, la Monarquía tradicional, como único medio de conseguir los fines expuestos” (ik. Navarro Cabanes 1917, 195).
- [7] “Tres muy amigos del señor Azkue, uno de ellos [Agirre] que habla y escribe bastante bien el euzkera, pero es un carlista furibundísimo, otro [Karmelo Etxegarai] que no es carlista y habla y escribe el euzkera, pero no bien y que debiendo escribir crónicas no las escribe, y el tercero [Julio Urkixo] que ni habla ni escribe el euzkera, pero habla y escribe acerca del euzkera” (ik. López Antón 1996, 144; gureak dira parentesi artekoak eta letra etzanak).

ondarrutarrak atxikimendu ideologiko haren erroak eta lokarriak eleberrian agertzeari utzi ziezaiokeenik. Erdi oharkabean itzuri izan balitzaio ere gogotik paperera.

Gaundigaitzak, hortaz, santaren urratsak loreztatzen hasi eta ondarrutarraren garaikide politizatu askorentzako irakaspen ideologikoak zabaldu nahi izateak zekartzan kontraesanak.

Ideologikoki lar eskoratua atera zitzaion eleberri haren aitzinean, bada, zail izan zitekeen esparru *bizkaitar* -ez karlista- biziko irakurleen gorespen askorik erdiestea, nahiz eta formalki bederen euskal narratiba helduaren zinezko zutarria finkatua uzten zuen Agirrerenak.

Egia esan, haren alde mintzatu zen lehena, eta luzaroan bakarra, Karmelo Etxegarai adiskide “apolitikoa”⁸ izan zen. Atalkako narrazioaren aurkezpena egiteko Agirrek hautatua⁹, idazlanari jositako hitzaurre zeharo apologetikoaren lehen lerroetan laburtu zuen eleberria irakurtzeko gakoetako bat:

Agirre Jaunak geiena goratzen dituen euskaldunak, dira, nere iritziz, euskaldunik onenak. Zergatik neri galdetzen badidate zein dan onena euskaldunen artean, bereala erantzungo det: Kristok erakutsitako bideari ongiena jarraitzen diona (Etxegarai 1898, 13).

Onesteko moduko mezua agian bai, baina ez inondik ere erakargarria, ziur asko, gatazkan txertatuak, gatazkaz inguratuak eta gehienbat literatura etxeko gatazka gaunditzeko ere baliatu nahi zuten irakurleentzat.

[8] Konparazio baterako, honela baloratzen zuen Etxegaraik Agirreren idazlanak *El Correo Español* delako aldizkari gogaidean agertzearena: “No veo que la inserción de un trabajo literario que uno escriba, en el folletín de un periódico político, suponga identidad de criterio con este periódico ni las cuestiones que se relacionan con los Poderes públicos” (ik. Gartzia Trujillo 2008, 117).

[9] “Hace tiempo que tengo aquí el prólogo de Echegaray: no te lo he querido enviar hasta saber tu resolución”, ziotson Agirrek Azkueri 1898ko urtarrilaren hasierako gutun batean (ik. Gartzia Trujillo 2008, 36). Eta honela “erantzun” zion *Euskalzalek* -Azkuek, alegia- urtarrilaren 13ko alean, eleberriari hasiera emateko oharrean: “Geure poza ta lan apaiñ onen edertasunak adierazoteko esango gendukez gauza asko; baiña entzun Etxegarai-ri, guk baiño obeto ta zeatzago ta ezauera geiagogaz itz egingo dau-ta” (in *Euskalzale*, 1898.01.13, 12 or.).

Erantsi dezagun, datu bezala, Sabin Aranari eta haren jarraitzaileei independentziaren aldeko jarrera publikoa eta espainol kolonialisten aurkakoa¹⁰ harraraziko zien Kubako gerra piztera zihoala une hartan bertan. Sorgunean egon zen *Maine* destruktorearen leherketa, adibidez, otsailaren 15ean burutu zen, hain zuzen ere Agirreren eleberrian arras gaitzetsia izango zen Portun gerlari “antikolonialista”-ren berririk oraindik ia ez zenean, handik bi egunera kaleratu baitzuen *Euskalzak* Portunez ziharduen kapitulua, laugarrena, “Portun barrutik” ezagutaraztera-edo zetorrena.

Baina azalekoetatik eta ohar maltzurñoen bat edo beste tartekaturik abiatu arren, hel diezaiozun irakurleoi dagokigun eginkizunari¹¹, jadanik aurreratuxe baitoakigu *Loreari* eskaini nahi genion arratsa.

2.- Agirre “odol zurbila” –Azkuek dio, Azkuek *dixit*- ez zen konplikaziotan sartu *Auñemendiko Lorearen* sortze-eskema taxutzean¹². Kanpotik ikusita bederen, inguruan gaztelaniaz arrakastatsu bilakatutako historia-eleberrien antzeko zerbait euskaraz burutzea baino ez zuen bilatzen

[10] Ezaguna da liberalak bezainbeste kontserbadoreak eta integristak elkartu zirena Kubako espainiar aginte koloniala defendatzeko jarrera eta aldarrietan. Haiek sortutako giro bortitzaren gordina zela eta, Aranatarak bezalako abertzale zenbaitek alde egin behar izan zuten orduan etxetik eta erdi sasiraturik aritu.

[11] “La novela histórica invita a su lector a reconsiderar una cierta época y a revalorizar intelectual y sentimentalmente ciertos hechos o figuras del pasado que dramatiza” (García Gual 1999, 149).

[12] Ez eta izenburua finkatzeko orduan ere, jakina baita Azkueri zor zaiola eleberriak daraman behin betiko titulua. Honatx lekeitiarraren hitz argigarriak: “Agirreren irakurgaiak izentzat *Auñemendiko lorea* artu eban. Egileak berak beste izen bategaz batzaldiratu (konkurtsuratu) eban. *Riktrudis* eritxon yaio baino lehago. Bere egilea Bilboratu zan baten «gizona, esan neutsan, *Riktrudis* izen gogorra da euskaldunen ezpanetarako, belarrietarako garratza. –Izen orixe eukan Arnoldoren alabeak eta... –Ba gorde Arnaldoren alabearentzat izen zakar ori, berea dabenezkero; baiña irakurgaiari, zeure buru ta biotzeko alabatxo oni, beste izen gozoago bat ezarri. –Zein?». Luzarotxo gogoketan egonda “Txomin, esan neutsan neure adiskide maiteari, frantsesez *Pic d’Any* deritxon mendi andi buru-zorrotz bati ango euskaldunak *Auñemendi* esan oi dautse. “Auntz-kumeen mendia” esan gura dau. Eta zure *Riktrudis* ori inguru aretantxe bizi ta gainera ona ta polit-polita zalako *¿Auñemendiko lorea* ezin ezarri ete lekio izentzat?”. Izen auxe emon eutsan irakurgaigileak bere lanari. Arrezkero gure arteko askok zuberotarren *Auñemendi* Pirineotzat darabile. Agirrek berak bere lanaren lenengo orrialdearen bekoaldean oar auxe dakar: *Auñemendi Montes Pirineos erderaz*” (ik. Gartzia Trujillo 2008, XIX).

idazle ondarrutarrak, Azkuek *Euskalzalzen* antolatutako literatur lehiaketan aurkezteko asmoarekin nonbait¹³.

Hizkuntzaren ahalmen narratiboaren erakuspena, beraz, Agirrek burutu nahi bide zuena, betiere euskaltzaletasunak bultzatua¹⁴.

Ondorioz, dokumentuen eskasiagatik fikzioari tarte zabala utzi ziezaiokeen iraganera jotzea zuen bide erosoena¹⁵, eta han baliagarri-eredugarri izan zitekeen pertsonaia aukeratzea. Apaiz izanik, eta akaso Azkueren iradokizunen bat tarteko¹⁶, ia erabat ezezaguna zen lehen santa euskaldunaren irudia zeukan hartarako egokiena eta “baldintzak”-dokumentazio(ez)arenak zein fikzionalak- ongien betetzen zituen.

Horrelako idazlan larri bati ekitean, bestalde, espero izatekoa zen haren ahalegin hagiografiko-historikoa ezaugarri zenbaitez tindaturik agertzea eta, maiz azpimarratu den bezala, funtsezko eginkizunak ere egokiro betetzea, hots,

[...] descifrar el sentido de ciertas figuras o sucesos del pasado desde una reconstrucción de esa época histórica. No [...] solo recuperar cierto pasado interesante, sino [...] ofrecer una interpretación ideológica de ese pasado. Nostalgia sí, pero inducida y guiada; vistazo a la historia con nuevo colorido, en el que el novelista no esconde su propia valoración (García Gual 1999, 150).

[13] Nahiz eta ez dirudien azken emaitzaren kalitatean sinesten zuenik. Honela mintzatu zitzaion Azkueri 1897ko irailaren hiruan: “Dirás que trabajo poco? Más que nunca: estoy entregado en todos los ratos libres a mi novela *Riktrudis*. No sé qué saldrá, pero saldrá algo que valga muy poco, pero que a mí me cuesta. Veremos si te satisface” (*ibidem*, 33)

[14] Zalantzan jarri ezinezko euskaltzaletasun betekoa zen harena, 1899an “Zergaitik galduten yakun euskerea” artikuluan lehendabizi, eta geroago, 1916an, “Euskeraren alde” izeneko diskurtsoan erakutsi zuen bezala (ikus, hurrenez hurren, Onaindia 1964, 238-242 eta 255-259).

[15] Eleberriaren uneren batean besterik dirudien arren, agerikoa da darabilen bibliografian bertan ez zela Agirre dokumentatzea, datak eta datuak zehatz eta exhaustiboki lantzea gogoko zuen ikertzailea. Ari dugun urtean bertan argitaratu zuen “Aita Larramendiren bizitzaren berri labur bat” artikulua “historikoan”, esaterako, “etorri narratiboak” hartzen du toki gehiena eta, harrigarriro, data bakar bat baino ez da hamaika orrialdetan barrena eskaintzen, andoaindarraren heriotzarena hain zuzen (ikus Onaindia 1964, 242-253).

[16] Ezin jakin, dena den, zenbateraino zen hedatua Duvoisinek Joanategiri euskal santaren irudia erreibindikatzeko zuzendu zion proposamena (ik. Salaberri 2016, 143, 29. oharra).

Agirreren eleberria argi samarra da horretan, islatzen duenaren arabera ez baita zail asmatzen noraino jorratu nahi izan zuen egileak berreskuratze-interpretatze lan hori eta noraino zuen aurreikusia le-
 rroetan barrena garatuko zuen joko ideologikoa. Edonola ere, guztiaren orientagarri izan litekeen datu zehatza da urtebete lehenago, hau da, 1897ko otsailean, kaleratu zuela Sabin Aranak Alderdi Karlistaren kriti-
 karik gogorrena¹⁷, non argi ikusarazi nahi baitzuen abandoarrak Euskal Herria erro-errotik mehatxatzen zuen arriskua:

la inminencia de una guerra intestina en el Pueblo Vasko, gue-
 rra que sería ocasionada por un error de éste y empeñada por
 una causa exótica (errege espainol baten aldekoa, azken ba-
 tean), y cuyo efecto inmediato habría de ser la completa des-
 trucción del país [...] que si hoy tal vez está expirando por las
 anemias y consunción que le causa su extravío y por las profun-
 das heridas abiertas en su pecho por dos extranjeristas luchas
 (lehen eta bigarren karlistaldiak, alegia), con una tercera gue-
 rra de este género vendría á suicidarse y á extinguirse para
 siempre (Arana Goiri 1897, 1).

Bestelako iritzia zuen Agirrek hartaz guztiaz. Alabaina, ezkuta ezi-
 nezko gudu ideologikoz gainera, beste faktore bat ere bilatzen bide
 zuen gure autoreak hagiografia fikzionatuaren bitartez: irakurleria ara-
 nistarengana hurreratzeko baliagarriago zirudien lokarria, hots, kris-
 tautasunaren osagarria ageriago uztea eta, bide batez, lakio gisara ere
 erabiltzea. Azurmendik jaso bezala,

Aranak integristen tesi politikoak arbuiatzen ditu. Baina aber-
 tzaleen eta integristen arteko elkarren sinpatia nabarmena da.
 Aranaren txit gogozko zen integristak fede katolikoaren al-
 dezkarri hain suhar ikustea, gotzainen eta apezzen hain esaneko
 (Azurmendi 1979, 37).

[17] Karlismoaren kontrako beligerantzia hark berak bulkatu zuen handik bi hilabetera
Baserritarra igandekaria sortzera. Azpimarratzekoa da, edonola ere, Arana lortzen ari
 zen zabalkundea, *El Partido Carlista y los Fueros Vasko-Nabarro* izenekoaren lehen bi
 edizioetako 15.000 aleak, esaterako, Nafarroa eta Lapurdiraino iritsi baitziren hama-
 bost egunetan.

Nolanahikoak izan zitezten Agirreren benetako asmoak eta korapi-loak, kontua da plano desberdinetara proiektatu zituela, oro har, liburuaren hariak.

Azaleko planoan, gogoratu beharrik ez da, Erroma urrunak¹⁸ santa izendatua zuen Riktrudis delako euskaldun emakumearen bizitza fikzionatua eskaintzen du¹⁹ eta, horretaz baliaturik, baita gandupeko Euskal Herriaren kristautzearen pasarte ganduzkoago baten irudikapena ere²⁰. Eleberriaren soslai -erdi- biografiko horretan nabarmen uzten da, noski, kristautasunari buruzko asmo apologetikoa eta narratzaileak irakurle garaikideei aurkezten dien erlijiozko oinarri, diogun, programatikoa.

Plano harekin uztartua, bestalde, Agirreren garai ideologikoki gatazkatsuen proiektio lañoa legoke, funtsean historiaren eta literaturaren baliabideekin bilbatutako diskurtso eklesiastiko ofiziala baino ez litzatekeena -ondarrutarraren kontzientzian sakon asko zizelkatua bide zegoena-, eta, azken buruan, santaren jokamoldearen (berr)interpretazio politikoki interesatuan lagunduko ziona.

Barne-muineko edo dei litekeen mailan, ordea, Agirreri arazo narratibo-ideologikoak sorraraziko zizkion pertinentzia identitarioaren faktorea atzematen da ehundua, eleberria idaztean era bizian eragin bide ziona, eta, hautatutako hari narratiboak berak areagoturik, egileak aurreikusi baino haratago eraman uste zuten ondorioak ekarri zizkiona.

Ganduz eta lanbroz estalitako plano horretan dautza osagai gatazkatsuenak, hau da, akulturazio-prozesuetan botere politikoek zein erli-

[18] Proposamen orokorrean sorrarazten duen kontraste larriagatik azpimarratu nahi genuke eleberrian nabarmentzen ez den Erromako elizaren datua, izan ere, euskal unibertsoa -*Auñemendiko*- jende gehienak neskatoa traidore bezala hartuko zuen bitartean, unibertso horren akulturazioa ahalbidetu eta sustatu zuten indarren -Erromako elizaren- eskutik etorri baitzen gero haren beatifikazioa, euskal unibertsuaren nahien eta asmoen ikurra balitz bezala ezarrita utzirik.

[19] Eleberri historikotzat hartzen bada ere, erdi ahazturiko tradizio erlijioso lauso batek ederreztatutako pertsonaiaren irudia da, ezer baino lehen, Agirrek libururatu nahi izan zuena eta, XIX. mendearen amaierari antzeman uste zizkion gizarte-paralelismo eta analogiez baliaturik, euskaldungoari eredu moral, sozial eta politiko gisara aurkeztu nahi izan ziona.

[20] Agirrek berak aitortua da nolako dokumentazioa erabili zuen Euskal Herriaren kristautzeari zegozkion pasarte historikoetarako eleberriari heldu zionean (ikus 1986ko edizioan 57, 111 eta 171 orrialdeetako oharra; testua arintzearen, aurrerantzeko erreferentziak orrialde-zenbakiarekin bakarrik emango dira).

jiosok gizatalde menderatuekiko jokatzan duten funtzio alienatzailearen gorespina dagitenak, batetik, eta kolonizatuek haien aurka ohi duten zilegizko erantzunaren bidearen deslegitimazioa dakartenak, bestetik.

Horiekin jokatzan du Agirrek aurrenik.

Baina ez horiekin bakarrik, aldi berean inbaditzaile-menderatzailearen zerbitzupuan jarritako moral zerutiar baten aldarrikapenaz tindatu baitzuen ondarrutarrak diskurtso guztia, hain zuzen ere, XIX. mendean etxean bertan sentitutako kolonizazioaren eraginei aurre egiteko jaioa zen hurbileko ideologia abertzalearen kontrakoa zena eta, are, justiziaren bila aritzea eta menderatuaren alde jokatzera eragozten zituen.

Azken batean, Agirreren eleberriak XIX. mendean amaierako irakurleari ondorioztarazi nahi ziona obraren une batean padarraren ezpainetan jartzen duen portaera-proposamena zen, hots, “euskaldun ona baiño kristiñau benetakoa izatea askozaz ohea da” (117 or.).

Horrela, artikulua honen lehen atalean aipatutako irakurketa-dese-rosotasun agerikoenei, irakurle motibatuenentzat liburua zinez gaitzigarri bilaka zezakeen faktore ideologikoa –eta distopia– ere erantsi zien Txomin Agirrek *Auñemendiko Lorean*. Gordin-gordinki gainera²¹, nahiz eta orokorrean antolatzen ari zen feriaz lar ohartu gabe, beharbada. Izatez, VII. mendeko euskaldunei eskuarki erlijioa eta kolonizazio politikoa faktore berri eta onartezin agertzen zitzaizkien bitartean, XIX. mendeko euskal gizarte errealak irentsia eta berezko egin zuten faktore erlijioso²², baina ez, inondik ere, arlo politikoari zegozkion penetrazio frantsesa eta hispanoa, alderantziz baizik: guztiz aienatu beharreko ko-

[21] Zilegi baledi Azurmendik berriki idatzitakoa (2017, 46 hk) Agirreren garaira eramatea eta parafraseatzeko aukeraz baliatzea, zalantza da ez ote zuten orduko irakurleak honelatsu pentsatuko: “Inork ni kristau deklaratu nintzan baino lehen [...] banuen identitate bat: euskalduna nintzen hain zuzen. Gero etorri da kristaua izatearena, goitik ezarria, inbaditzaileek hala edo hola guri eratzikia. Zer dela-eta kontrajartzen dizkidate orain, bada, ezin nahas daitezkeen kategoriak? Zer dela-eta esaten didate kategoria haietako bat, nire identitateari gainjarri zaion estalki hutsa baino ez dena, lehenetsi behar dudala eta hura nire egiazko nortasun bilakatu?”.

[22] “Euskaldun, fededun” errefrauekin adierazi nahi izaten zena inor gutxik jarriko zuten zalantzan XIX. mendean. Ordurako euskal identitateak faktore kristaua zuten berezko osagaitzat. Alabaina Agirre prest zegoen “jakintzat emandako” horien jolasa historiaurrearaino eramateko (kristau ote zen euskalduna Kristo baino lehen? Arnoldok baietz dio: “Euskaldunena izan da beti kurutzera Lauburu-ren izenagaz” [79 or.]).

lonizaziotzat harturik, haietatik independizatzeko plangintza politikoak ari ziren egikaritzen euskal munduan.

Zail askoa, hortaz, VII. mendeko kolonizazio-egoera hartatik Agirrek atera nahi zituen ondorio ideologiko eta portaerazkoak irakurle garaikide sentsibilizatuei eredugarri gisa irentsarazteko prediku-lana.

3.- Labur-zurrean, bi ardatz nagusiren inguruan izurturik antzeman litezke erronka ideologiko-narratibo horren hariak: formalki luze garatua –nahiz eta, kronologiari bagagozkio, denbora laburrean gertatua–, euskal mundu menditarra dirudienaren ikuspegi orokorra, kolonizazio-egoeraren diagnosia, inbaditzaileen aurkako gerraren legitimazioa eta hartara abiatzeko erabakia jasotzen dituen mataza litzateke lehendabizikoa.

Askoz orrialde eta interes gutxiagokoa da, berriz, bigarrena, protagonista nagusien erabakiez eta jokabide pertsonalez mintzo dena eta, behin euskal santaren traizio etniko-politiko fedearen aitzakiarekin zurituz, eta jadanik kolonizazio-auzi oroz arras ahaztua, eleberriari hagiografiaren amaiera ortodoxoa ahalbidetuko diona.

Tartean, edonola ere, bada bien arteko jostura/hausketa-une interregarririk: Riktrudis euskalduna –jainkoarekiko albokotasunagatik *sakratua* den pertsonaia, lehen begiratuan sortutako ustezko amoratze bateg eropozten duena– frankotar agintari kolonizatzailearekin ezkontzen deneko unea, hain zuzen. Une erabakigarria.

Eta ohargarria, besteren artean, narrazioaren bidegurutze horrek pertsonaia-multzoen benetako perspektiba-desitxuratzeak, jarrera-alaketak eta desbideraketak ekarriko dituelako ondoriotzat, eta batik bat bando kontrajarrien konformazioa ordura arte bateraturik ziharduten añaemenditarren artean. Handik hara, eta adiskide diruditen arrotz batzuen laguntza estimaezinarekin, bitan banaturik gertatuko da frankoek erasotua zuten jendea: gutxi batzuk –protagonistaren hurbileko zenbait ahaidek eta kristautu berrik– ontzat hartuko dute Riktrudisen ezkontzeko hautua, eta gainerakoek –frankoen menderakuntzaren kontrako borrokan segitu behar dela uste duten *añaemenditar* gehienek– traizio larritzat hartuko dute²³ Riktrudisek egindakoa²⁴.

[23] Gogoratzekoa da, Riktrudisek egindakoa traiziotzat bizi dutenen perspektiba ez

Baina honako hau bezalako arratsalde baterako eta Portun gisako gaizkileon arteko mintzagaia izateko interesgarriena, ez da zalantzarik, lehen iritzi-desbideraketen inflexio-puntura arteko atala dugu, eleberriratu protagonistaren irudikapen historiko-erlijiosoa izanik liburuaren xedea, “kondaira” interesatu horren agindupeko kontakizun belaxka besterik ez baita handik aurrerakoa. Horri erantsi behar zaio, jakina, lehen uneetan irekita utzitako atal zenbaiten itxiera zoriontsua, besteak beste, Portun “arro putz” (43 or.) eta menderakaitzaren²⁵ kristau-artalderatze funsgabea.

Hizpide dugunari helduz, hortaz, argi da Agirre apaizak ez duela batere eragozpenik Euskal Herriaren historian ezin munta handiagoa izan zuen lehen akulturazio-prozesu nagusiaren aurrean ezikusiarrena egiteko eta, haren gainean, Herri baten erabateko sumisio politiko-kulturala baino ez zena zerbait positibo balitz bezala eraikitzeko, horrela aurkezteko eta huraxe defendatzeko, betiere fede kristauaren aldarria bide.

Edo era gordinago batez esanda: gure idazleak ez zuen inolako kezkarik izan bere Herriaren historia, ez zaharra eta ez garaikidea, ulertzeko, ez haren interpretaziorik eskaintzeko, eta are gutxiago errealtateari zegokion *errelato* koherentea ontzen saiatzeko, bestelako xedeak baitzizkion idazlanari jarriak, azalean bere sinesmen eta lanbide

galtzeko, nola neskatoak bere Herriaren lege, sinesmen eta ohitura zaharrak baztertzen dituen eta nola erbestetik etorritakoek inposatutakoak –fede, lege zein agintari– bere-bere egiten dituen. Eta euskal agintari baten alaba izanda, eta bere jokamoldeak sorraraz ditzakeen distortsio politiko-sozialei eta gatazkei begiratu ere gabe, nola ez duen eragozpenik buruzagi inbaditzaileekin ezkontzeko eta, jaioterria utzirik, frankoen urruneko gortera bizitzera alde egiteko... maitasun-itxura hartzen duen nerabezaroko apeta huts bategatik.

[24] Haren inozotasuna eta *argiztapen* santua gorabehera (berea den erabakitza hartu beharrean, zeruko agindutza hartzen baitu bere portaera eta gertakari oro, “alan gurako eban Jaungoikoak” edo “datorrena datorrela, Jaunaren eskuetatik dator [...] Egin bedi beti Bere naigura donea” esanez [148 or.]), geroago ere, erbestera –Ostrabentora– bizitzera joandakoan, gogoan finko iltzatua izango du nolakoak izan ziren bere traizioaren tamaina eta oihartzuna: “Riktrudisek bialtzen zituan Euskalerrira bere begiradarik bigun, gozo ta eztsuenak... eta Euskalerritik biurtuten jakozan Riktrudisi arao ta birao donga ta ikaragarritzkoak. Riktrudisen biotzak: «maitea! neure maitea!» esaten eutsan Auñemendiri... ta Auñemendiko basoetatik erantzuten jakon: «madarikatua zu, ta madarikatuak zureak!»” (147 or.; g.l.e.).

[25] Fama hori dauka Portunek baita “umil eta itz biguneko” agertzen denean ere, batzarreran Mendiolako Arnoldori zuzentzen zaionean bezala (ik. 43 or.).

erlijiosoekin lotuagoak²⁶, eta, ulertarazten duenagatik –eta modu bezian azpimarratu nahi genuke hau, sarritan ahazten den puntua baita–, barren sakonean estrategia *bizkaitarra* lausotzera eta ikusmolde politiko hegemonikoekin bat egitera bideratuak.

Begi bistakoa da historia errealak, osagai funtsezkoenetatik hasita, nekez izan zezakeela tokirik proposamen narratibo hartan. Orduko euskaldunen bizimodua, frankoen aurka bortizki ari ziren euskaldun haien irudikapena, adibidez, inolaz ere ezin zen errealitatetik hartua izan, horrek goitik behera hautsiko baitzion eleberriaren garapena.

Eleberrian barrena –eta baluke horrek paralelismorik egun ere– Agirrek une historiko zehatz bateraino baizik ez du ulertu nahi –eta ez du ulertzen– Euskal Herrian frankoek abian duten kolonizazio-prozesua. Eta une hartarainoxe eramaten du kolonizazioaren aurkako defentsaguduen legitimazioa, ez gehiago. Handik aurrera, eta goibehera zenbaitekin bada ere, norbanakoen haserrez eta gorrotoz ehundutako fikzio manikeo bat besterik ez da izango Agirrek irudikatuko duen “egia historikoa”; fikziozko errealitate interesatua, beraz, nonbait –horratx erdietsi nahi duen korolariora– bizitza ulertzeko pentsakera edo sinesmen berri batek baizik ezin konpon lezakeena.

Kontrasteak nabarmentze aldera, Agirreraren euskal errealitatearen “interpretazio” horrekin erkatzeko modukoa izan liteke garai bertsean Hegoaldean gertatu ohi zenaz Azurmendik eskaintzen duen ikuspegi historikoa, zeharo bestelakoa eta ondarrutarrak bilatu eredugarritasunekin zerikusirik ez duena:

Euskaldunek errespetu gutxi zioten Eliza Aman santari eta haren etxe eta pertsona santuei. Receswinthoren aurkako iraultzan, euskaldunek ez zuten tenploen, ez aldareen, ez klerikoen miramenik agertu. Aldean harrapatu zuten dena erre eta kiskali zuten, elizak apurtu, monastegiak eraitsi, aldareak po-

[26] Gertakari akulturatzaile nagusia eleberria kaleratu aurretik zetorren laburbildua, zuritua eta nabarmendua Karmelo Etxegaraik prestatutako hitzaurrean: “Euskalerrriak bere kondairan duen gertakizunik aundiena da Euskalerrriaren kristautzea. Biotza poztutzen digun gauza da, Aitor-en semea izatea, ¿baiña Kristoren semea izatea ezta milla bider aundiagoa? Aitor-en semeak Kristoren seme biurtu ziranean agertu ziran Euskalerrriarentzat egun berri zoragarriak. *Ori ikusi nai ez duena, txit itsutua dago*” (Etxegarai 1898, 12; g.l.e.).

rrokatu, monje eta klerikoak jo eta garbitu, hilak bazterretan bota, zakurren edo beleen janaritako... (Azurmendi 1992, 87).

Gauzak –historia eta ideologia– horrela, ez dirudi Agirrek samur eta erakargarri jarri zienik irakurleei euskal narratibaren sorreraz ilusio-natzeko abiapuntua eta, are gutxiago, narratibaren sorrera nazionalaz mintzatzen hastekoa.

Baina hitzak hari-bira, goazen eleberrira, idatzitakoa zuzenean galdekatzera, hura da-eta lekukorik biziena eta berritsuena. Eta bidea egiteko, pertsonaiek eta eleberriak berak *Auñemendiko* errealitateaz luza-tzen duten ikuspegia garantzzen hasiko gara.

4.- Bitxitasunak eta kontraesan arinak gorabehera, bat datoz narrazioaren lehen unean bizitza politikoaz zerbait dakiten pertsonaia nagusiak *Auñemendin* bizi den errealitatea atzemateko eran, narratzaileak berak sentitzen eta azaltzen duenaren ildoko modua edonola ere. Izatez, irakurleari egoeraren berri emateko orduan, Agirrek argi uzten du kontakizuna “euskaldunen lurrian” (25 or.) garatuko dela, ageri-agerian jarritz orobat XIX. mendeko Frantziaren menpeko lurraldean dagoela delako gertaleku hori.

Ondarrutarrarena, hortaz, errealitatearen lehen diagnostikoa, eta ez, bidenabar esateko, inolaz ere aseptikoa edo irakurketa-ondoriorik gabea.

Gure santa eskarmentugabea salbuespen, gainerako pertsonaiak, berdin euskaldunak zein erdaldunak, berdin lagunak zein areriotzat hartuak direnak, guztiak datoz bat egoera soziopolitikoak deskribatzean. Eta horrela, bai Riktrudisen ama Luziak, aita Arnoldok²⁷, euskal leinue-tako kideek, euskaldun gazteen arketipo sutsu den Portunek berak²⁸ eta

[27] Ezin ahantz daiteke Arnoldo ez dela “beste” euskaldun bat gehiago, agintari nagusietakoa baizik: “ia bere bizitza guztian euskaldun gizonen nagusi izan da” (27 or.). Are gehiago, une batean Riktrudisek aipatu dituen eta “esango dozan *gizon guztiak baiño izen andiagokoa da ire Aita*” (29 or.; g.l.e.). Horrez gain, odoleko konpromisoa darama zainetan iltzaturik: “Arnoldok bere zanetako odolagaz ortxe busti dau sarritan gure lurra ta ortxe nunbaiten ikusi ditu jausten bere seme morrosko biak” (27 or.).

[28] Agirrerri nahi gabe eta behar baino gehiagotan itzuri egiten zaion pertsonaia bizi, gaizto eta harroputza izateaz gainera, maite duenaren menpean egoteko bezain sentibera ere bada Portun fedegabea (ik. 53-55 or.). Eta areago, baita sanoa (“zer dauka zer ikusirik siñiste bat edo beste eukiteak gizonak geiago edo gitxiago balio iza-

bai, azkenik, gutxien espero litzatekeen Adalbaldo duke *frankoak* ere, guztiek egiten dute bat errealitatearen analisisian. Hau da, argi dute guztiek *Auñemendi* izendapenaren bidez irudikatzen den euskal lurraldea –edo, nahiago bada, Euskal Herria²⁹– frankoek inbaditua izan dela eta, oro har, inbaditzaileen menpe segitzen dutela bertako euskaldunek, arrotzen uztarpetik ateratzeko etengabeko borrokan ari badira ere.

Ildo horretan, eredugarritasun ororen ifrentzuan seinalatutako pertsonaiak egiten duen diagnostikoa da, ikuspuntu guztietatik begirata, xumeena, zuzenena eta argiena. Honatx, franko inbaditzaileak eta haien bidez ezarritako sinesmen arrotza hizpide hartuta, Portunen hitzak:

Zer da emen prankotarra, atzo goizean agerturiko arrotz lapurra baizen besterik? Eta zeinek ez dauka lapur bat irainduteko eskubidea? Kristoren sinismenekoak ez garala! [...] Orain artean ondo bizi izan gara fede zarreko gizonok beste euskaldunakaz (52 or.; g.l.e.).

Ezer gutxi gehiago erantsi zitekeen lerro pare horretan Portun azkarrak³⁰ atzematen zuen kolonizazio-egoera akulturatzailearen deskribapena hobetzeko: a) franko inbaditzaile *etorri berria* arrotza –integratu gabea, alegia– eta *lapurra* baino ez da *hemen*; b) euskaldunak lasai eta ondo asko bizi ziren, frankoen konplizitatearekin batera etorri eta beraien estrategia politikoaren atala bihurturik ezartzen ari diren *fede berria* gabe.

Diagnostikoa ez ezik, jarraikako jokamoldea ere oso izango du Portunek koherentea pentsatzen eta esaten duenarekin. Kolonizazioaren aurkako koherentzia sutsua, esan nahi baita.

teko?” [54 or.]) eta hipokrisiarik gabekoa ere bai (“ez dot nik sinisten ez dodan gauzarik esan gura, ta ez dot esango bere” [*idem*]). Dena den, asko itxaron behar du irakurleak –ia kristau bilakatzeko unera iritsi arte– Portun “fedegaiztokoa” benetan nolako liderra den jakiteko: “Portunen izenak beste Euskalerriko guztiak illunpetan daukaz, jana. Ez da bera motel ta argibakoa, azkarra da, sendoa, zala, okerra, ausarditsua, esku biak nun daukazan dakiana” (145 or.).

[29] Maiz asko “Euskalerrria” delakoa azaltzen da *Auñemendiren* ordez jarria, beronen sinonimo garbitzat (ikus, esaterako, 27 or., 28 or., 31 or., 62 or., 116 or., etab.). Eta ez du besterik erakusten “euskaldun” hitzak ere, *Auñemendiko* biztanleak adierazteko agertzen baita beti.

[30] Tasun hori eta gurlari-senaren ñabardura zehatzenak Gaixpar, Uberoren morroi kristauari zor zaizkio (ikus 145 or.).

Eta geroago honetara itzuliko garen arren, merezi du pare bat puntu aurreratzea. Hain zuzen ere, Agirrek Auñemendiko gatazka guztiaren iturburutzat aurkeztu zuen gertakari anekdotikoren unean³¹ koherentzia berarekin jokatzeko segitu zuen Portunek espia hutsa izan zitekeen Adalbaldo frankoari honako hau aurpegiatu zionean: “Zein zara zu emen niri esondeak [aholkuak] emoteko?” (58 or.). Eta are koherenteago jokatu zuen honelako baieztapena jaurti zionean bertako sinismenak egiazkoa omen zen erlijio berri batez ordezkatzera etorri zenari:

–Zure siñistea ta zure gisakoena guzurra dala diñotsut, guzurra Jesukristo ta guzurtokiak zuen Elizak” (*idem*).

Agerikoa da Agirreraren hautua: hark jakintzat eta onetsitzat du kristau-erlijioa dela egiazkoa eta egiazko bakarra, eta, ondorioz, berak, Adalbadok eta edozein kristauk eskubidea dutela bertako sinismenak gezurra direla esateko eta predikatzeko³². Haren ustez, hori aldarrikatzea ezin zen inondik ere irain izan³³; alderantzizko aldarrikapena –Portunek dagiena–, ordea, bai, irain nabarmena.

Gorago esan bezala, ez du Agirrek historiaren ispiluan lar begiratu nahi eta, are gutxiago, euskal gizarte errealaren argazkirik atera. Hala-

[31] Irakurleak ondo dakien bezala, maitasun zapuztu batetik eta berekoikeria eta jelskortasun-egoera hutsetatik bailedorren agertzen da irudikatua eleberriaren problematika nagusia, deribazio kulturalak eta politiko-militarrak barne, eleberri honetan konstante bat baita istoriorako interesgarria ez den errealitate historikoari muzin egitearena eta zinez soziopolitikoak ziren arazoak pertsonalak balira bezala tratatuz agertzearena.

[32] Monoteismoetan ohikoa, fede kristauak ere egia eta arrazoiaren monopolioaren erabateko ziurtasunaz bedekintzen ditu hartan sinesten dutenak. Hortik, gero, fedekontutan inoiz ez agertzea erru-aztarnarik, errudunak beti baitira “besteak”, sinesgabeak, baita fede berri hori estrategia kolonialistekin nahasturik doanean ere. Errukiorki eta frankoak auñemenditarren zapaltzaile direla ahantzirik lasaitzen du, esate baterako, Adalbadok emaztea honek “neuretarrak zeuri ez ondo begiratuteak min emoten deust” esaten dioenari: “Eta zer egingo deutzazu? Gurea al da errua? Errua gurea balitz, orduan izango litzateke gauza mingarria, baiña ez dan ezkerro, arima garbia daukagun ezkerro, ez daukagu zergaitik miñik artu” (138 or.). Barka biezat irakurleak paralelismoa, baina, beste Franko hark hain ondo zekien bezala, nonbait ez dago “arima garbia” izatea bezalakorik nahi beste sarraskiri espiritualki jahal-jahal ekin ahal izateko...

[33] Adalbadok Portunez eta hura bezalako euskaldunak zeukan iritzia –iraina, akaso?– garbi asko islatzen da euskaldunaren ustezko irainaren ondokoa jasotzen duen pasarte honetan: “Orduan biurto nintxakon, ta bapere aserre barik eta *euskaldun fede gaiztokoaren* biotza Jesusentzat irabazteko gogoagaz [...]” (58 or.; g.l.e.).

beharrez, muturreko norbanako zenbaiten erreakzio soltetzat aurkeztu behar ditu une batetik aurrerako portaera bortitzak, batik bat, franko (eta) kristauen aurka doazenak. Eta abagune horretan Portun pertsonaia gaiztoa jarri behar du ezinbestean, eredugarri nahi dituen kontraste manikeoz beteriko narrazioak aurrera egingo badu.

Baina fikzio hagiografiko kristau bat da Agirrek funtsean eskaini nahi duena, eta akaso horrexegatik beragatik dira Portunena baino diagnostiko esanguratsuagoak santutasunaren bidea hautatuko duten protagonista kristautu berrien diskurtsoak.

Honela mintzo da, esaterako, Riktrudisen ama frankoek ezarritako inbasio eta menderakuntza politiko-militarra dela eta³⁴:

–Guda barri bat ostera, gure artean, guztiz erraz sortuten dan gauzea da. *Eun urte oneetan guda bat amaitu orduko beste bat asi oi daroagu, or beeko prankotarrakaz, gu menderatu ta euren legeen azpian ipiñi gura gaituelako* (29 or.; g.l.e.).

Agirrek erdi zuriturik utzi bide duen jauzi dialektiko bat egiten du, halere, segidan, orrialde berean, euskaldunek frankoekin izandako guda nagusien kronikaren amaieran. Auñemenditarren borroka antikolonialistaren diskurtsoa apaltzeko prestatutako jauzia, hain zuzen. Zeren eta Luziaren hitzetatik isuritakoaren arabera frankoen gurari hutsa zirudiena (hots, frankoek “gu menderatu ta euren legeen azpian ipiñi gura gaitu”) zeharo errealitate desberdina zen zatez: “gureak” –euskaldunak, alegia– “menderatuak izan ziran” (29 or.). Hau da, uztarpeturik zituzten frankoek auñemenditarrek, arrotzen menpe zeuden euskaldunak, haien agindupean.

Guztiarekin ere, ez da hor amaitzen delako jauzi diskurtsiboa, hagiografia fikzionatua behar bezala bideratua uzteko ezinbestekoa den menderatzaileen bihotz ona –kristaua, noski– agertzen hasiko baita hurrengo lerroetan:

Egia esateko, *etziran gero prankotarrok euskaldunakaz ain gaizki akindu* (hots, portatu). Jenial kondea izan zan *emen erbestetarrak ipiñiriko agintaria* [...] (30 or.; g.l.e.).

[34] Hamargarren mendean, Marchienneseko monasterioaren eraginez Hucbaldo San Amandokoak idatzitako *Vita Rictrudis* delakoaren arabera, euskal santaren gurasoak lehenagotik ziren kristau eta frankoen kolaboratzaile.

Are gehiago, Luzia bera da, harrigarriro, diskurtso antikolonialistaren barnean honako hau tartekatzen duena, hots, agintari modura bidali zutela (nork? nondik?) gotzain frankoa:

[...] *bialdu euskuen Amando, gizon zuzena, ona, ta euskaldunakaz gauza askotan bat egiten ekiana. Alan da guztiz bere, beti izaten genduan zerbait: etzan Amando jatorriz euskalduna, ta emen, euskalduna izan ezik, atzerriko agintariakaz, doneak izanda bere ez da egundo gauza onik izan* (30 or.; g.l.e.).

Lerro labur hauetan, beraz, menderatzaileekin ulerkorra izaten hasia den borrokalari antikolonialista gisara irudikatzen du Agirrek Luzia, era xume-xumean, amek ohi duten goxotasunarekin, inolako kontraesanik ez balego bezala.

Jakina, agerikoa da pasarte honetan Agirrek “ona vs euskalduna” binomioaren jolasa prestatzen hasi nahi izan zuela eleberrian defendatuko zuen tesia egokitzen joateko.

Baina Agirrek, protagonistaren santutasun-bide eredugarriko lautu behar duen “gidoiak” eskatuta edo, Luziari emanarazten dion jauzi horrek ez dio inolaz ere egoeraren gainerako perspektiba lausotzen. Eta horrela, alabarekin didaktikoki bezain grafikoki mintzatzen ari delarik, hitz bakar bat ere sobran ez dagoela laburtzen dio Riktrudisi inbaditzailearen aurkako gerren garrantzia eta premia³⁵:

-Nai ta naizkoa da gu azpiratzera datozenen kontra guda egitea (30 or.; g.l.e.).

Eta bereziki ohargarria da nola azpimarratzen dion Luziak alabari euskaldunek inbaditzaileen kontra pizten dituzten gerra guztien zilegitasuna, Riktrudisek defentsa-eskubidea zalantzan jartzen duenean³⁶:

-[...] neuk esaten deunat bein bere ez dala bide txarrekoa euskaldunak prankotarren kontra hasten daben gudea (33 or.; g.l.e.)

[35] Nahiz eta ongi asko ohartua den Luzia gudatan ibiltzeak sortzen dituen: “Ez dakin ondo, Riktrudis, zenbateraino dan negargarria” (30 or.).

[36] Amando gotzain frankoaren eraginez nonbait, ustekabeko mezuak agertzen hasi da Riktrudis amaren aurrean, batetik gerra defentsiboa bera egiteko eskubidea zafratuz eta, bestetik, euskaldunek has dezaketen guden “legezkotasuna” zalantzan jarriz: “Guda bat beti da txarra, ta askozaz txarragoa zuzenbidetik ez datorrenean...” (32 or.; g.l.e.).

Galdera-baiezpenetan xehatuago utziko du tesia hurrengo lerroetan:

–Zek dakarz gure mendietara jente arrotzak? Zer galdu jake basoan? Zer deutseegu zor? Ezer galdu badabe, emongo jake billatzen dogunean: ezeren zorrik badaukagu, emongo deutsagu arpegia zorrari; baiña gure ekandu zar, oitura on ta txabole-tako jenteai itxi daioela bakean” (30 or.).

Erraz asko ekar liteke hona planteamendu teoriko horren ondorioztatze zehatzagorik ere³⁷, istorioak inposatzen duen egiantzekotasunarekin lotua doan pasarte, esaterako, non Auñemendin “arrotzak” frankoak direla aitortzen den:

Bego geldirik arrano goitarren abia, arpegiko narrua bere erpe gogorraren artean itxi gura ez badabe ikutzailleak; itxi geldirik arkaitz zuloetan bizi dan otsoari, bere agin artean zatitua izan gura ez badau *prankotarrak* (30-31 or.).

Are gehiago, Luziaren ustez, orduko euskaldunek ez zuten frankoak baino etsai okerragorik, alabari jaurti dituenengatik –“anaia prankotar”-ez hasi baitzaio mintzatzen Riktrudis- errieta botatzen hasten zaionean adierazten duen bezala:

–[...] Baiña Jesus! Jesus! Euk bere andiak esaten ditunan. Ez dilla gure Aita anaien kontra asi! Gure anaiak noiztik ona dira prankotarrok, maite? Noiztik ona! Gure areriorik okerrenak ez dira beti? (34 or.).

Errealitatearen bipolarizatze ideologiko-sinbolikoa erakutsiko duten bizpahiru lerrotan garatutako tesia³⁸ eta haren bidez transmitituriko sentsibilitatea, jarrera eta jarduteko gonbita dira, beraz, Luzia amak istorioaren protagonista denari helarazi (nahi) dizkionak. Guztiarekin ere, laster asko sumatu du Luziak zer etorriko zaion alabari hartu duen bidean jarraituz gero:

[37] Bukaerarik ez bide duen menderakuntza frankotarraren aurka zaildua izateak aterazten dio Luziari, bat-batean eta barren-barrenetik, ondoko desioa: “Ain nago prankotarra buruaren erdian beste zartada bat emoteko gogotsua!” (36 or.).

[38] Ez da faltako klasiko bilakatzen ari zen *goia/behea* eskema ere: “Bizi bitez arrotzak ordu onean euren erri beietan nahi daben erara; baiña itxi daiguela guri gure baso errian. Beian betarrak, goitarrak goietan, bakoitza bere tokian” (31 or.).

-[...] Esango daroe ez daukanala ik eure zanetan arako gure mendiak, gure itzate ta izkuntza zarraren alde il ziran anaia errizaleen odola (33 or.).

Aldi berean, ez dirudi Riktrudisen aita ere gatazkaren hautematean atzean geratzekoa denik³⁹, laurogei urte baditu ere. Hala kontatzen dio haren emazte Luziak Riktrudis alabari:

-[...] Iru egun da Arnoldo etxera agertu ez dala, ta bildur naz guda berriren bat *or beeko prankotarren kontra* asmauta, eure Aita esukaldun gudarien buru ta zuzentzaille ipiñiko ez ete dabe. Ta ez da gaur orain ogetamar urteko gizona [...] Bere otsein, morroi ta maizterrak bialdu daizala: ez dau beste batek Arnaldok aiñia gizon *Euskalerraren alde bialduko*” (27 or.).

Luziaren hitzetatik inferi daitekeenez, argi da Arnoldorentzat gauza bera dela “beeko prankotarren kontra” egiten den gudua eta “Euskalerraren alde” egiten dena⁴⁰, eta, adin-kontuak direla eta, bera joaten ez bada ere borroka-frontera, bere jendea bidaliko duela gudukatzerara. Zeren eta, Arnaldok berak aitortuko duen moduan,

-Ez dira [euskaldunak] gudazaleak [...]. Ez deutse, eurentzat, arra bat lur ostuko iñori; *baiña Euskalerriak daukazan mugetatik barrura badator iñor zematuaz edo zerbait kentzeko asmoetan, naiz ta izan munduaren jaubea, jarkiko jakoz aurrez aurre euskaldun guztiak, aitorren seme, morroi ta nagusi, Ama ta alabai; leoi biurtuko dira danak, eta euren jaiotetxean arrotz etsaiaren oiña sartu baiño lenago, banan banan atari ondoan illotzik geldituko dira, arrotzaren kontra esatera joiazan azkenengo apaldiz edo biraoa ortz estutuen artean*

[39] Haren hilondokoetan padar koblakari euskaldunak hil berriari zuzentzen dizkion hitzak argi mintzo dira Arnaldok garai batean inbaditzaileen aurka erakutsitako jokamoldeaz: “Euskalerraren kontra etozan bakotxean, zenbat prankotar amaitu zenduzan! Zenbati, aizkorakada baten, kendu zeuntsen arnasea” (116 or.). Kristau izan aurretik, nonbait. Alabaina, diskurtsoaren arabera, Agirrek nahasi eta lausotu egiten du aurretik/ondoren arteko marra ere, honela irudikatuko baitu gure Arnoldo mezu kristaua nabarmentzea egokitzen zaionean: “Kristiñau bizi ta kristiñau il zara” (115 or.), “Euskaldun ona ta kristiñau benetakoa izan zara” (117 or.), etab.

[40] Ildo berekoa da Riktrudisen apreziazioa ere, frankoen aurkako guda-gidaritza planteatzean honako hau eransten duenean: “*Euskalerriak badaukaz gizon goiendeko zintzoak*” (28 or.; g.l.e.). Eta nolakoak gainera: “[...] indarra besoan, argitasuna adiñean, sua ta garra beregaindeko biotzean; [...] gizon leiala ta zuzendari burutsua” (*idem*), etab.

geldituten jakoela. Olangoak dira euskaldunak; esan daidan obeto, olangoak gara: onean onak, txarrean okerrenak (62-63 or.; g.l.e.).

Hil hurren denean ere argi agertuko du Arnoldok bere pentsakera⁴¹:

–[...] *arrotza gogorrean badator gogorrean jaurti daiela erritik kanpora; gure arteko gauzetan geuk izan bear dogu nagusi, etxekoetan etxeakoak izan bear daben senera; lapurrak ostu deuskuena beti da gurea, gizaldiak igarota bere ta geure etxera ekarten saiatu bear dogu[...] baiña ez da ondo erbestekoari gorrotoa gordetea atzerritarra dalako beste baga. Gauza okerra da guri egindako gaiztakeria ez aztutea, naiz eta gaiztakeririk mingarriena izan, niri egin deustena dan legez... Lurbira guztikoai parkatuten deutset, lurbira guztikoai parka eska naiakoe, ta Jaungoikoak parkatu daidala neuri (102 or.; g.l.e.).*

Baina itzul gaitezen Luziaren diskurtso arras aratzera, zeren eta, esandako guztiaz gainera, emakumeek segitu ohi dituzten –eta segitu beharko dituzten– jokamoldeak ere iritsarazten baitizkio Riktrudis alabari:

Emengo emakume bakotxa lehoi eme aserratua baiño aserreago jarten da erbestetar gudariak ikustean (31 or.; g.l.e.).

Areago, amak berak ere esperientzia antikolonialista hori nola bizi izan duen kontatzen dio alabari:

–Biotzean naigabea ta begietan malkoa dodazala, neuk, Riktrudis, *neuk berotu ditut askotan etxe onetako gizonak erbestetarren kontra joan eitezan; neuk, emakumea, emaztea, gurasoa, Ama izanik! Neuk biraldu ditut prankotarren kontra neure senar maitea ta neure seme kutunak (31; g.l.e.)*

Ikaragarri latza –eta gogotik ezabatzeko gaitza– inbaditzaileen aurkako borroka militarretan ama batek bi seme galtzeak duen oinaze-sinbolismoa, gutxietsi gabe, noski, amek semeekiko duten atxikimendu be-

[41] Kontu desberdina da, zeharo, teoria horretatik praktikara igarotzean euskal buruzagi politikoak egiten duen bira, bere sen –kristau– onak ez baitio franko –kristau– inbaditzaileengan ezer txarrik edo gogorrik atzemateko ahalmenik uzten. Nonbait, denbora bertsuan jasan izan duen akulturazioak mengeldu eta itsutu egin du frankoen menderakuntza gordinaz ohartzeko.

reziak horrelakoei erantsi ohi dien trajedia-zama gogorra. Baina horrek beste maila batean lekarkiokeen ezin ahantzizko mendekatze-nahia gorabehera, Luziak aratza du diagnostikoa.

Santutasunaren bidean abiatzear egonik, horrelako giza-kutsadura lurtarrik ezin izan zezakeen alaba txintxoaren erantzuna berez mintzo da: amaren jokamolde patriotiko irmoaz miretsirik geratzen da eta, aldi berean, alaba leial bezala, aitortu ere egiten du amaren portaerarekiko harridura, haren borroka antikolonialista Euskal Herriari dion maitasunaren pareko edo sinonimotzat hartzeaz gainera, atxikimendu haren ondoriotzat ere jasotzen baitu:

–Arriturik nauka, Ama, zuk Euskalherriari izan deutzazun maite-tasunak (31 or.).

Erantsi behar da, halaber, amak ez duela zalantza-izpirik erakusten historian zehar frankoen aurka eramandako borroka guztia onesteko –aurreko garaietakoa esan nahi baita⁴²– eta inongo damurik gabe hartzeko. Ikus, adibidez, 581ean hasitako jazarpenez Luziak egiten duen kronikaren pasarte hau⁴³:

–[...] 581-garrengoan, jatsi ziran menditik gureak, otso amorratuen antzera, ta eroan zituen arerioak beterritik zear igesik gure lurretik kanpora, artalde bat euren aurrean otsoak eroan oi daben era berean. [...] etorri ziran barriro: ugari etorri ziran [...] baiña txiñurriak baizen erraz euskaldunen oiñazpian zapalduak izan ziran [...] (29 or.).

Baina ezagun da Agirrek, eleberri hagiografikoarekin era ortodoxoan segitzeko, kamustu behar izan zuela testuinguru politikotik atera zitekeen sen antikolonialista guztia. Nahiz eta zapalkuntza kolonialistaren diagnostikoa ez zen, aurreratu bezala, bando bakar batekoen perzeptzio eksklusiboari zegokion kontua.

[42] Erantsi beharrik ez da pare bat orrialdetan barrena erakusten duen ezagutza historikoak berak ematen diola Luziaren diagnostikoari gainerako pertsonaienari baino sinesgarritasun gehiago; iritzi bestelakatu samarra duen arren, badakielako nolakoa izaten ari den frankoen ezarpen-politika, alegia.

[43] Osorik irakurtzea merezi badu ere, ez dira esangura gutxiagokoak ondoko pasarte hauek ere: “Bosteun ta larogeta seigarrengo urtean egin zan beste sarrera on bat; eta bosteun ta larogeta zortzian beste bat, gogorragoa ta ohea [...]” etab., harik eta “gureak” –hots, euskaldunak– “[...] prankotarren odolagaz erreka zabal gorriak egin bazituen bere, menderatuak izan ziran” arte (29 or.).

Izatez, egoeraren analisia egitean erabat irizkide dute, paradoxikoki, añaemenditarrek etsaia. Honela mintzo da protagonistaren senar bilakatuko den Adalbaldo *frankoa*⁴⁴:

–[...] *autortu bearrean nago aspalditxoan eurak* (bere “erritar agintari” frankoei buruz ari da Adalbaldo) izan dirala *bakearen areriorik gogorrenak emen inguruetan* (62 or.; g.l.e.).

Are zehatzago mintzatuko da franko inbaditzaileek berek ezarritako kolonizazio-egoeraz eleberriaren amaieran, erregearen aginduz euskaldunei bakea eskaintzera joatean buruzagi franko zenbaiti zuzentzen zaienean:

–[...] *Gogoratu zaitzeze [...] luzaroko gizaldietan menditarrakaz darabilgun gudea, tema ta lelo zar bat baizen besterik ez dala gaur; eurak eta geuk, danok erruak ditugula, geuk geiago eurak baiño, bada gutarrak ziran Euskalerrira joan ta lurak ostu, gizonak il, etxeak erre ta beste oben negargarri asko egin zituen gudariak* (166 or.; g.l.e.).

Lehenago ere agerian utzi du nola jardun ohi zuten frankoek euskal eremuak “modernizatzer” zihoztenetan⁴⁵:

–[...] *Bideak egitera [zabaltzera, alegia] neu joango nitzateke; baiña indarrean, gogorrean, guda soiñuan joan bearke neuke, ta ori ez dot nai. Ez dot gura geiago gorrotorako apukori ipiñi* (137 or.; g.l.e.).

[44] Ez da inondik ere harena maitemintzeak kutsaturiko hautemate desorekatua, errege frankoak berak “zeregintxoak” egitera bidalitako buruzagi zoli baten pertzepzioa baizik. Baina badaezpada ere, argi utziko du Agirrek nolako zuzena eta egokia behar zuen frankoaren iritziak, ezin baitzen besterik espero hainbeste bertutez –“onoidadez”– jantzitako gizon batengatik: “gizon jakintsua zan Adalbaldo au, guztiz aberatsa, Jesukristoren lege zalea ta onoidade andiakaz apaindua” (57 or.), “bakezalea” (137 or.), “gizona baino geiago aingerua zirudiana” (148 or.), etab. (ikus halaber 149 or.).

[45] Erantsi beharrik ez da horrelakoetan, “bortizkeria” erabili beharko luketela adierazten dutenetan, jarraian “leungarria” erabili ohi dutela frankoek, agerian utziz jarrera bortitzeakoak añaemenditar “fedegaiztokoak” baino ez zirela. Honako hau Adalbaldoren kasuan: “Bakezalea naz, badakizu zeuk [Amando gotzainari mintzo bazaio ere, irakurlea da mezuaren hartzaile zuzena], eta bakean nai neuke joan Euskalerrira, anaien artean legez, ezpanetan irribarrea ta biotzean poztasun andi bat ditudala” (137 or.).

Egoeraz egiten duen diagnostiko horiengatik⁴⁶, hain zuzen, ez da harritzekoa eleberriaren hasieran egiten duen aitorpena, nonbait lapurtutakoaren errestituzio kristauaren kontzeptuarekin zerikusi gehiago duena zor kolonialistarekin baino, bide batez esateko:

–Nire eskuetan balego, gure artean bakea betiko izan dedin *euskaldunei emongo neuskioez indarrean malmuzkatu ta kendu jakoezan lurrak; itxiko neuskioe buztarri baga, beren lege ta ekandukaz gura daben eran bizi daitezen* (60 or.; g.l.e.).

Beraz, haren ontasuna –kristautasuna– erakusteko premiagatik ere esanarazten zaio Adalbaldori esaten duena, hots, injustizia-egoera kanpotarrek ekarri izan dutela *Auñemendi* delakoak sinbolizatzen zuen Euskal lurraldera eta, gauzak horrela, damu edo zirela bera bezalako kristau zintzoak beraiek inposatutako egoera hartaz.

Alabaina, euskaldunak “beren lege ta ekandukaz gura daben eran bizi daitezen” utziko lituzkeela dioenean, ez bide dabil frankoa egiazki pentsatzen duena aitortzen, monoteismoen berezko espantsionismo-edo zabaltze-nahiak tarteko, lege berriak –frankoen interes hutsekoak– eta forma erlijioso arrotzak –denborarekin bertakoen ekandu bihurtuz joango direnak– ezartzen ari baitira gupidarik gabe *Auñemendin*, sinesmenaren esparruko ezarpen-ahaleginetan Amando gotzain frankoa estrategaburu dutelarik.

Pertsonaien diagnostikoen artean, gorago aurreratu bezala, bada salbuespenik, Riktrudis protagonistarena bezain garrantzitsua eta larria den salbuespenik hain zuzen, eskarmenturik gabeko neskato kristautuaren pertzepzioa justu kontrakoa baita hasieratik, kontrakoa bezain ino-

[46] Ezin, tamalez, adibidetan exhaustiboak izan orrialde-kopuru mugatuko artikuluan. Bada, edozelan ere, pasarte interesgarri bat non, hitzak eta asmo onak gorabehera, ezin argiago geratzen baita Adalbaldok ondo baino hobeto ezagutzen zuela *Auñemendin* zuen aginte-indarra. Hots, Ostrabenton jakinarazten zaienean Riktrudisi “*Auñemendik, Erriak, euskaldunak*” kendu eta nazionalizatu-edo egin dizkiotela bertan zituen ondasun guztiak (ik. 135-136 or.), Adalbaldori zer bururatu eta, “zure *Auñemendiko* ondasun guztiak Euskalerriko landerrentzat iztea” proposatzen dio emazteari (138 or.). Berandu samar, pentsa lezake irakurleak; baina ez, goi agintaria dela dakien batentzat inoiz ez da berandu beren legeaz baliatzeko eta galdutakoak berreskuratzeko. Kristau eskuzabal eta apal huts agertzea nahi lukeen erantzun esplizituan datza, beraz, gakoak: “Orretara ikusiko dabe zure erritarrak zure ondasunen billa ez nazala ibilli, orretara ezagutuko dabe *Euskalerriko agintaritzearen zale ez nazala*” (*idem*; g.l.e.).

zoa, alegia⁴⁷. Eta ez ikusteagatik, bere senarra izango denak ikusten duena ere ez du ikusten gaixoak:

–[...] Beste edozein emakume bestean euskalduna naz ni: zane-tan neure anaia maiteen odola daroat, Mendiolako etxeoan-drearen odola: *ez neuke bidurrik izango euskaldun guztien aurretik, Aitaren orde zedo Aitagaz batean, neure erriko etsaien kontra, aizkora bat eskuan dodala joateko, gure lurra, gure izkuntza edo gure izatea zematuz baletoz: etsai ugariak ikusi arren nire aurrean, ez litzateke orduan ikaratuko nire biotza, ez neuke dardararik izango nire besoan jente arrotzaren buruak erdibituteko [...], baiña ez dago gaur, Ama, olango gauzarik* (33 or.; g.l.e.).

Baina *auñemenditarrentzako* mehatxuzko egoerarik ez dela argudiatu arren, besterik du neskatoak buruan, espiritual huts diruditen bestelako *baldintzak* –martiri bilakatzeko baliagarri izan litzakeen baldintza kristauak⁴⁸– baititu zinez gogoan, aurreko lerroaldean berariaz ezabaturik utzi ditugunak:

[47] Artean, Riktrudis bizitzaz ezer gutxi dakien “neskatila” xalo eta tolesgabea baino ez da, oraindik Amando gotzainak bereetarantz “tolestu” ez duena. Berehala ikusiko da, halere, nola den fede berrirantz bideratua (“zeure gogoa da nirea” aitortzen dion neskatoak gotzainari [36 or.]), kontrastez eta kontraesanez beterik utziko baitu elizgizon frankoak “gure” lehen santa honen nortasuna, neskak sarri ohi duen aitorenaren sakramentuaz baliaturik (ik. 35 or.). Egia da, esate baterako, elizkoia bederen badela neskatoa (gertakariak, esaterako, “larunbat goizean, eu [Riktrudis] elizan intzan bitartean” sortu ziren [28 or.]), eta agian kristaua ere bai, amari ez baitio gezurrik esaten (“egia esango deusut, beti legez” [32 or.]) eta mezu kristauak zabaltzen baititu han-hemenka (“gizonak anaiak izanik” [30 or.], etab.), baina egia ere da alaba onaren aurpegiak berekoikeria nabarmena –“eurezkor” deitzen dio Luziak alabari [32 or.]– islatzen duela inbaditzaileei aurre egiteko prestatzen ari ziren gerraz jardutean, jarraian ikusiko den bezala. Egia ere da, bestalde, ohi baino ausartago irudikatu nahi izan zuela Agirrek xede –kristau?– haiek lortzeko unean, amak ziotson bezala, gizonenak ziren gauzetan sartu baitzen (32 or.), emakume euskaldunek inoiz egin gabekoetan hain zuzen (33 or.), kontzientziari kasurik egin gabe (“orrek erakutsi bear euanan etzala ona ik darabilnan asmoa” [32 or.]), eta amari ezer esan gabe gainera.

[48] Geroago ere adieraziko du Riktrudisek bere martiri-sena: “prankotarrak eta gu adiskide izateagaitik ontxe emongo neuke neure bizitza” (66 or.). Agirrek berak, ohar batean, bere buruaz agertzen duena bezain erlijiozkoa eta erromatarra, beharbada (ik. 120 or.), nahiz eta neskatoari bizkarreratzen zaion gogoeta biologiko-emozionalak bakerako arrazoiei buruzko zalantzarekin ere utzi dezakeen irakurlea: “Riktrudisek [...] gogoan eroan eban dukea, esanaz bere artean, barru-barruan, ta ixil-ixilik: orixe bai dala gizon bat ona... ta ederra!” (67 or.).

–[...] nire gorputz edo arimako bizia kentzera baletoz, nik geien maite nai ditudan arimako ondasunak ostuteko gogoak balekarrez, guda zuzenean jokatu genduke, *baiña ez dago gaur, Ama, olango gauzarik* (33 or.; g.l.e.).

Espiritu kristau horrek berak eramango du analisi sinplista bat aurkeztera:

–[...] gizon gaizto batzuen bidebagako andinai izateak edo beste batzuen kurruka egarriak, aspaldietako ikusieziñak, edo norbaiten umekeriazko eztabaidak, auts artean ia estaldurik egoan su kaltegarria barrero biztu nahi dabe. Ta ori ez da ondo: gudara joan bear da, guda egin bearra nahi ta naiezkoa danean, ta ez batek edo bik bere griña zatar guztiai ase te bat emon gura deutseelako (*idem*).

Ez du askoz argumentario hoberik behar Riktrudisek, oso baitira berekoiak –kristauak?– bere asmoak gerra piztu ez dadin⁴⁹:

–[...] Pedro Marik esango deutsa, nigaitik ezer egin nai badau Portunek [hartaz itsuki maiteminduta egon arren, Riktrudisek maitatzen ez duen mutilak, alegia], amatau daiala gudarako sua, edo *gitxienez, egin daiala zerbait nire Aita gudara joan ez dedin...*” (32 or.; g.l.e.).

Eta berdintsu pentsatzen du Portunek berak ere Riktrudisen benetako motibazioei buruz:

Uste dau Riktrudisek gudan asi bear dogula; gogoratu jako bere Aita orretara jarrita badago, iñok ez dabela atzeratuko; ni nabillela guda billa ta neure eskuetan egoala gudarik ez izatea esan deutse [...] (53 or.; g.l.e.).

Antibelizismo interesatuegia, bada, Riktrudisi islarazten zaiona, eta ez lerro batzuk lehenago, eta ondoren, malko lehorrez argudiatutakoaren ildokoa: “zer negargarria dan, Ama, gizonak anaiak izanik, alkarre-

[49] Pedro Mari otseina tarteko, egia osatzera letozkeen kontraesanezko arrazoiak ere luzatzen ditu Agirrek santa euskaldunaren ahotik: “orregaitik, Pedro Mariren bitartez esan deusat Aitari, *gure arimen bakeagaitik*, anaia prankotarraren kontra ez dedilla ezertan asi, oraingoan beintzat” (33 or.; g.l.e.). Aurretik emandako arrazoiak ere egia horren osagarri lirateke: “*gure etxearen onagaitik, zeu [ama] atsegin apur bateaz ikustearren...*” (32 or.; g.l.e.).

gaz beti gudetan ibiltzea” (30 or.), “guda bat beti da txarra” (32 or.), etab.

5.- Horrelako *klimax* ideologikoraino helduta, eta ohiko eleberrian ez bezala –errazago baitu honek topikoekin haustea eta irudimenezko bide berriak urratzea–, zail izaten du narrazio hagiografikoak kontrasteen konplexutasuna eta aberastasuna mantentzea. Urek ezinbestean iritsi behar izaten dute-eta bai idazleak eta bai irakurleak alde zuzenetik eza-gutzen duten laku miresgarrira.

Hortaz, Agirreren intereseko osagaiak izango dira gure “eleberri” honetan azaleratzen eta indarra hartzen hasiko direnak, eta horrekin batera, baita apaltzen ere esparru narratibo eta ideologikokoak, haren motor behar zuten pertsonaien motibazioak eta bilakaerak arras sinpleturik geratuko baitira handik aurrera. Guzti-guztia, agidanez, hagiografia hertsia eskatzen uste zizkion baloreen aldarean sakrifikatua.

Irizpide onetsia da, izan ere, ezin luzaz iraun dezakeela mezu bortitz-desorekatzaileak hagiografia kristau batean –protagonistak martiri bilakarazteko azken orduko bortizkeriatik at, esan nahi baita–, eta gehienik ere haren konbertsioaren fruituak agertzeko uneraino baino ez. Beraz, hagiografiatua martiri ez izanki, Agirreren idazlanean ere espero izatekoa zen, guduarekin erantzutera eramanez zezaketen horrenbeste printzipio, hausnarketa eta jokabide antikolonialista agertu ondoren, “kristau” guztien ezpainenatik arras desaktibatuz uztea portaera biolentoak ahalbide zitzaketen diskurtsoak, berdin protagonistarenak zein gainerako kristau eredu-garrienak. Eta areago, “bizitzak” aurrean jarritako motibazioengatik desaktibatuak hain zuzen ere, eta ez, inondik inora, motibazio arrazional, politiko edota nolabaiteko konbentzimendu ideologikorik adieraz zezaketenengatik.

Nonbait –horratx narratzaileak hautatu bidea– afektibitatearen esparrutik bakarrik etorritako arrazoiak izan zitezkeen Agirreren eleberrian eragingarri⁵⁰, bihotzaren –ba al da sentimendu kristauak, onak eta positiboak, sinboliza ditzakeen gorputz-atal hoberik?– mugimenduarenetik isuriak, hain preseski:

[50] - Riktrudisek, bidenabar gogora bedi, ezin hobeto baliatuko dituenak: “bere alaba ederraren begi ederrak malkoz beterik ikusi zituanean, andra Luziari biotza samurtu jakon, damutu jakozan esanak guztiak [...]” (34 or.).

–*Baiña gaur, [...] negar asko egiña nazalako, edo neure zanetan odolak otzitu jatazalako, edo eu, Riktrudis, lurrean bakarrik gelditu ez adin, edo etxakiñak nik zegaitik; baiña Arnoldo gurea emengo gudarien aurretik joatea ez neuke nai* (31 or.; g.l.e.).

Ordura arteko diagnostiko eta azterketen arrazionaltasuna, bada, sentimenduek ordeztua; esku-liburu arruntetako erromantizismo loretsu gisara, azken buruan. Baina ondoren eta ondorioz, hain erromantiko ez dirudien efektua: Herri baten zilegizko estrategiak eta defentsamekanismo kolektiboak norbanakoen emozioekin estaliak eta, larriago dena, afektuen manipulazioaren bitartez deslegitimatzen eta desaktibatzen hasiak. Riktrudisen portaerak –Agirreren diskurtso kristauaren gauzatze narratiboak, alegia– ezin ageriago utziko du hori amaren aurrean negar-zotinka hasten denean:

bere alaba ederraren begi ederrak malkoz beterik ikusi zituanean, andra Luziari biotza samurtu jakon, damutu jakozan esanak guztiak [...] (34 or.; g.l.e.).

Ama, Luzia, izaeraz ez baita inondik ere doilorra edo odolzalea, eta dagoeneko hasia baita oldar- eta menperakuntza-presio objektibo eta sistematiko hura azken urteetan inbaditzaile zenbaitek utzitako fruitu bakandu-leundua balitz bezala “irakurtzen”, batetik, “etziran gero prankotarrok euskaldunakaz ain gaizki akindu” (30 or.) esanez, eta bestetik, inbaditzaileek ezarritako agintarien arteko desberdintasunak nabarmentzen: “urte batzuetan [...] bakean bizi izan giñan”, etab.

Diskurtsoren ordura arteko parametroak eta diagnostikoak, hortaz, analisi politikotik psikologiaren dibanera aldatuak.

Jakina, logika desaktibatzaile horren bidez aurkeztu nahi diren franko zintzo(ago)en zakutoan sar liteke Amando agintari inbaditzailearen kasua –hots, “gizon zuzena, ona” eta euskaldunekin hainbat kontutan “bat egiten” zuena–, eta baita gertakarien unean bertan agintari dagoen beste frankoarena ere: “oraingoa bere ez da ain txarra” (30 or.), dio Luziak.

Hau da, *Auñemendiko* jendea menderaturik zeukan kanpoko inbaditzaileek ba bide zuten, logika indibidualizatzaile haren arabera, haien kontra altxatzea eragozten zuen ezaugarriren bat, betiere elipsien bidez adierazten hasia, baina narrazioan esplizituegi –ez behintzat *ona* eta *hain txarra* kalifikatibo orokorretatik harago– agertu nahi ez zena. Harik

eta, jauzi kualitatiboa emanez, une hartan bertan santutasunaren ataria urratzen hasiko zen Riktrudisek bere *esku kristaua* –Erromak kontsakra-tuko zuena– tartekatu zuen arte:

–O! Zer *negargarria* dan, Ama, *gizonak, anaiak izanik*, alkarregaz *beti gudetan ibiltea* (30 or.; gureak dira letza etzanak).

Jadanik erdi kristauturik dirudien amaren⁵¹ jarrera, edozein gisatan, inbaditzaileen aurkakoa da oraindik, eta erantzuna ere, goian aurreratu bezala, zeharo garbia: “Nai ta naizkoa da gu azpiratzera datozenen kontra guda egitea” (30 or.).

Estrategia-iraulketa horren ondoren, eta batik bat erakusten duen xumetasunagatik, nabarmentzekoa da Agirrek antolatuko duen joko bi-koitza: batetik, zeharo jarrera zuritzailea erakutsiko du erlijio-kide sentitzen dituenekiko –inbaditzaile frankoak barne– eta, bestetik, jokabide kriminalizatzailea gainerakoekiko, kristautu gabeko euskaldunekiko batik bat.

Narrazioa horrela makurrarazteak, erantsi beharrik ez dago, mani-keismo hutsa(goa)ri irekiko dizkio ateak, eta handik hara, behin arlo politiko-ideologikoaren gatazka alboratuta, are gehiago erantzungo diote pertsonaiek eta haien jarrera eta portaerek onak/gaiztoak, kristauak/fedegabeak eskema interesatu bezain narratiboki interesgabeari⁵².

Nolanahi ere, lehen “zuriketa” gogoragarria eliz hierarka den Amando izeneko gotzain frankoarekin burutuko du ondarrutarrak, gorago aipatu dugun bezala, eta, ondorioz, ez du haren jokabidean inolako arerio-itzalik ikusiko⁵³ eta ez ikusaraziko, ez eta akulturazio-lanen az-

[51] *Avant la lettre* bada ere, kristau anonimoen gisara mintzo zaio alaba amari elkarriketaren une batean: “zeu, Ama izan arren, kristinau benetakoa zara gaiñera, zuek uste dozun baiño ohea” (34 or.). Luziak, halere, ez du horretaz hitz egin nahi eta gainean duten gerraren gaiari heltzen dio segidan: “Itxi daiogun gauza oni bakean, ta esan eidan gudarako bide onen jatorria zelan jakin donan” (35 or.).

[52] K. Etxegaraik ondo bereizirik utzi zuen eleberriari jarritako hitzaurrean “zer nola-koak ziran Kristoren lege donea biotzez maitatzen zuten euskaldunak: Arnaldo, Ubero, Riktrudis, euskaldun zintzoak, leialak, beren erriari naitasun andia ziotenak, baiña beren erriari naitasun andia izanagaitik, bakoitzari berea ematen zekitenak. Eta oen aurrean, Adalbaldo bat, arrotza izan arren, euskaldunak maite zituena, kristauak ziralako. Eta guztien gaiñetik, Amando apezpikua, Kristoren legea zabaltzea bere egitekotzat zuena, eta orregatik guztientzat ona, zergatik Kristoren irudi ta antzera bizi danak guztientzat ona izan bear du” (Etxegarai 1898, 12).

[53] - Auñemenditarren artean Mendiolarren aurkako mesfidantza zabaltzen denean,

tarnarik ere, eta are gutxiago, antza, estrategia inbaditzaile-zapaltzaile-rik⁵⁴; nahiz eta etengabe ari den gotzaina erlijioaren esparrua gainditzen duten lan berezietan, besteak beste, herrikide dituen frankoen aurkako ekimenak atzeman nahian –espioitza?⁵⁵–, eta *gauza publikoa* bere gustu eta interesen arabera bideratu guran.

Agirrek antolatutako bipolaritateen jolas horretan, Portun euskaldun fedegabeari egokituko zaio atalik bortitzena –kriminalizatua izatearena–, huraxe izango baita Riktrudis euskaldunaren eredugarritasun erlijioso-pedagogikoarekin kontrajarria izateko beste muturreko euskaldun pertsonaiarik esanguratsuena⁵⁶. Eta hartan, Amando *santu* frankoa-

Portunek argi uzten du Amandoren eragina familiaren traizioan: “elizgizon arrotzaren esandek entzunda, edozetara jarri zen” (132 or.). Jakina, Txomin Agirre orojakileak atzerriko izate huts hartan ipini nahi izan zuen kritikaren azentua, eta ez franko inbaditzailea izatean, haien interesen alde jokatzearan edota burutzen ari zen manipulazioan: “Amando bere, gizon ona zan baiña, erbestekoa zan eta... *Amandoren kontra etziran ainbeste azartuten euskaldun kristiñauak, fede gaiztokoak bai*” (133 or.; g.l.e.). Nolanahi ere den, euskaldun kristauak ere, gehiago ala gutxiago, Amandoren aurka agertzen ziren...

- [54] Menjoulet kronikari erlijioso franko-gaskoiairen begiradaren bitartez ikusi zuen Agirrek beti Amandoren irudia. Hainbat arlotan, halere, ez bide zuen haren informazioa aintzat hartu nahi izan: “Hucbald dit encore que, dans son exil, *saint Amand alla instruire Rictrude dans sa propre patrie, c’est-à-dire, ajoute-t-il, en Vasconie... avec l’espoir d’y être martyrisé*” (1869, 23; g.l.e.). Horren arabera, Amandok oso garbi zekien zer nolako eginkizun akulturatzaileek zerematen *Auñemendira* eta nola har zitzaketan bertakoek bera bezalako pertsonak.
- [55] Gogoan izatekoa da nola darabilen Riktrudis inozoa informazioa jasotzeko. Esate baterako, Amandok ez du inolako eragozpenik neskatoaren aitorten espirituala entzun bezain azkar –eta nonbait haren hariarekin eten gabe– “Aita non dozu, Riktrudis?” (35 or.) galdetzeko. Erantzunaren ondorioz (“orain iru egun dala etxetik kanpora dabil, non ez dakit” [*idem*]), gotzain frankoak berehala atzeman ahal izango du zerbait ilun eta klandestinitan ari direla euskaldun buruzagiak; eta mihia askatzeko atea ireki diezaiokeen hipotesia ere formulatu du jarraian: “Ozinbeltzeko batzarrean egongo jatzu” (*idem*). Neskato kokoloak konfabulazioaren hariak osatzen lagundu dio, izan ere, “*euskaldunak zeregin astunen baten gaiñeko batzarra dauke?*” galdetzean, gotzainaren erantzuna azkarra bezain zakarra baita: “*gauza onerako ez*” (*idem*; g.l.e.). Geroago ere, errege frankoaren aginduz zerabilen espioitza-jokamoldeaz mintzo da Uberorekin izandako elkarrizketan euskaldunei eta egoerari buruzko galdera: “Ez dakit ezer garbiro ta jakiteko ustean nator zugana. Zer darabilzue?” (141 or.).
- [56] Etxegaraik eleberriaren hitzaurrean irakurleei ohartarazi bezala, “*Portunen antzeko euskaldunik ez degu bear, gure erri maitea geroago ta maitagarriago ikusi nai degunak [...]*” (1898, 13; g.l.e.). Zergatik zioen hura? Eleberria mintzo da: “Riktrudis ezkondu zanean Portunek zabaldu zituan txinpartetatik etorri ziran gero errientzat ainbeste kalte, ainbeste odol-erreka, ainbeste arimen ondamendi” (155 or.). Eleberriaren arabera, Portun geratuko da euskaldunen eta frankoen arteko gudu historikoen erru-

ri emango zaio albiste-sortzaile, transmititzaile eta, Agirrek horrela ikusarazi nahi ez badu ere, manipulatzaile izateko erantzukizuna⁵⁷. Kasurako, Amandoren ezpainetatik jasoko du Riktrudisek aspaldidanik maiteminduta⁵⁸ duen Portunen izaeraren irudikapen hau, gotzain frankoa baitu aitorle eta egia ororen iturri⁵⁹:

–[...] *Prankotarra* bere bidean *elizara eioan*, ta *Portun orrek*, *siniste bagea ta arroxko samarra* zelan dan, fedearen kontra zerbait esan ta barre ta *ziñuren batzuk egin* bear izan eutsazan fedezaleari [...] ukabilkadaren batzuk alkarri emonak izan bear dabe. Ordutik ona, or dabil Portun su ta garrak arturik, euskaldun altsu guztiai deiezka, Altzibarrenen jazo zana berak nai daben eran guzurraz apaintzen, ta alde guztietan deadarka, ez dagola lur onetan gauza onik *prankotar guztiak inguruetatik bein betiko kendu gabe*” (35 or.; g.l.e.).

Jakina, Portunen irudikapen zeharo deskalifikatzailearekin jotzekean, agerian geratzen da gotzain frankoaren estrategia komunikati- boak duen arrakasta, neskatila inozoari kontatutakoa izango da-eta euskaldunen artean zabalduko den bertsioa. Kate horren lehen lekukoa, Mendiolako Pedro Marik Arnoldori helarazten dion bertsioa, gotzain frankoarengandik jaso ondoren Riktrudisek kontatutakoa bera:

–Amando apezpikoak esan ei deutsa [Riktrudisi], Aitzbarrengo eliz atarian, Portunek eta *prankotar batek eztabaidaren bat izan dabela*, Portunek *Elizara eioan* *prankotarrari barre ta ziñuren batzuk egin deutzazalako* (39 or.).

Amandok zabaltzen dituen bertsioen benetako iturria Adalbaldo frankoa eta bestelako euskaldun kristauak badira ere⁶⁰, sinesgarritasu-

dun bakartzat. 638. urtetik kristautu arte, bederen.

[57] Manipulazio gogorrek jasan beharko ditu neskatilak eta ingurukoek oro har, besteak beste, Amandok euskal “erri guztiari agergarri on bat [frankoarekin ezkontzea, alegia] emon bear jakola diño[ela]” (83 or.), guraso eta ahaide guztien izen ona ezaindurik gerta dakiokenean Riktrudisi. Eta ez da hona ekarriko haren hitzetatik etengabe isurtzen den paternalismo manipulatzailearen adibiderik, tartean neskatoarengana zuzentzean “enetxoa” bezalakoak eransten baditu ere (128 or.), etab.

[58] Bi urte dira Portunek Riktrudis ezagutu zuenetik (53 or.). Une hartan 23 urtekoa zen, beraz, neska.

[59] Lehentxeago amari “bera [Portun] dala guda onetarako zirikaria aitu dot” (32 or.) esan dionean, argi erakutsi du Riktrudisek Amandorengandik baino ezin etor dakizkiokeen zurrumurruak eta informazioak darabiltzala gogoan.

[60] Adalbaldo frankoak kontatu ohi dionaz gainera, “Aitzbarrengo kristinauak” ditu,

naren areagotzea dakarkie albisteei berri-emailea hierarkia kristauan goi-mailako elizgizona izateak. Eta horretaz baliatzen da gure franko santua.

6.- Nonbait erlijio-kide duelako edota geroko kroniketan *apôtre des Basques* –euskaldunon apostolu– izendaturik agertzen delako⁶¹, kontua da Txomin Agirrek ez duela Amandori buruzko iritzi enpatikoa zalantzan jartzeko ez asmorik eta ez, antza, ahalmenik⁶², nahiz eta, hori bai, begien aurrean uzten dion irakurleari gotzain frankoari interesatzen zaion gauza bakarra –Agirre euskaldunari bezalatsu, oro har– kristautzearen hedapena dela, eta ez inondik ere *Auñemendi* edo euskal jendea.

Egia da, horratik, haren diskurtso formalak bestelakoa dirudiela inoizka:

Nabillen toki guztietan bakezko mandataria naz ni, ez prankotarren aldekoa; [...] ez euskaldunen arerioa. Gizon guztiak ditut nik adiskide ta gehiago Jesusen adiskideak badira: gizon guztiak gura nituke nik maitetasunezko lokarriakaz alkartu (35-36 or.; g.l.e.).

Baina hori esanarazten dion Agirre narratzaileak ez dirudi jabetu nahi duenik –ezin bide du, lanbideak berak galarazten baitio– gotzainarekiko erlijio-identifikazioak dakarkion joko aizunduaz⁶³. Izatez, franko haren praktika pastoralak garden adierazten du diskurtso neutroarena estalki hutsa dela, eta bere herrikide inbaditzaileen menpeko *Auñemendi* baten alde eta hura kristautzearen alde egiten duela sistematikoki. Eta euskaldunen konbertsiorako estrategia argi uztearren, eta zalantzarik gera ez dadin, garbi aldarrikatzen ere du “orretarako bakea bear

antza, euskaldunen munduaren barneko berrien informatzaile zintzoenak.

[61] Hitz horiekin kalifikatzen da gotzain frankoa Menjouleten liburuaren tituluan bertan.

[62] Nekez alda zezakeen Agirrek ezer, behin betiko finkatu baitzuen eleberriaren hasieran bertan haren nortasuna: “Kristoren erakuslea” (35 or.). Eta bere *alter ego* gisa harturik edo, eredutzat du eta jartzen du beti gotzaina, baita erlijiotik harago ere, besteak beste, euskaldunen errealitate politiko-militarra (ez) ikusteko moduan eta Herrien arteko egoera disimetrikoak (inbaditzaileak vs menderatuak) “ahaztean” (ikus “Amandoren lana” kapitulua).

[63] Harrigarria, edonola ere, hurbil baino hurbilago baitzuen ondarrutarrak 1876ko karlistaldiaren amaieratik zetorkion “franko” –hispano– kristauen paralelismo politiko-ideologikoa ezertaz ere ez ohartzeko.

dogu[la], luzarorako bakea” (60 or.). Bestela esanda, frankoen agintarritza ezarri, finkatu eta onestean baino ezin erdiets daitekeen bakea “bear dogu”.

Eliza kristauaren arabeko santutasun-onespena laster irabaziko zuen Amando gotzainak ez zuen, noski, egoeraren inguruko diagnostiko sakonik egin beharrik hori guztia defendatzeko. Ezer aitortu gabe ere, aski zeukan estatus erlijioso-hierarkikoa bere bertsio kolonialistak egiazat hedatzeko⁶⁴ eta jendeari sinetsarazteko⁶⁵, eta baita zioen guztia-aren legitimazioa homologatua ikusteko ere, isilpean jorratzen zituen arlo eta estrategia politiko-militarrei zegokiena barne⁶⁶.

Mundu kristauaren begirune horretatik iritsi zen hagiografia fikzio-natura Amandoren autoritate hierarkiko-erlijiosoa, autoritate berezia, edozelan ere, ezinbesteko argudio arrazionalak kanporatu behar zirenean ere, elipsi ulergaitzetan urtzen baitzituen arrazoibideak. Hari horretan, ezin grafikoagoa da euskaldunek inbaditzaileen aurkako gerrari ekin ez diezaioten gotzainak plazaratzen duen argudioa:

[64] Ez dirudi Luziak –Riktrudisen amak– atzerritarrez fidatzen direnetakoa; halaz ere, elizgizonak alabarekin burutu duen manipulazioa onartu nahi ez, eta mesfidati samar mintzo da, nahiz jadanik kristau gisako jokamolde sinestuna ere agertzen duen: “Ondo... bai, *Amandok esan deunana egia bada... eta egia izango da*, apezpiko jaun egizalekoak esan dabenean” (36 or.; g.l.e.). Izan ere, arrazoiak garbi agertzeko premiarik ez bada ere –“gidoiak eskatzen duela” baino ez, edozelan ere–, Luziak kristau egin nahi du bere burua: “Nik bere, beste gauza guztien gaiñetik kristiñau izatea gura dot ba” (36-37 or.). Eta egin ere egiten da, jakina.

[65] Nabarmentzekoa da Riktrudisen aitak Amandorekin erakusten duen konfiantza Pedro Mari otseinak honako hau dionean: “alan esan ei dau apezpikoak”. Harrigarriro, ordura arte fedegabe-edo zirudien Arnoldoren erantzunak ez du zalantzarik uzten: “Eta alan izango da. Amando... *ondo ezagututen dot neuk Amando*, ta badakit gauza bat ondo jakin baga esango ez dabela” (40 or.; g.l.e.). Inozoegia da, nonbait, Arnoldo Amandoren azpijokoaz ohartzeko, eta ez bide dio manipulazio-zantzurik ikusten Adalbaldoren aurrean gotzainak galdekatzen duenean euskaldunek bezperan izandako batzar sekretuaz: “Baiña ez dozue orain prankotarren kontra gudarik asiko? *Zetan gelditu ziñan Ozinbeltzen?*” (63 or.; g.l.e.).

[66] Amandoren eginkizuna ez da aholku espiritualetara mugatzen, eta etengabe ari da muturra berez berari ez dagokion arloan sartzen eta, nola edo hala, bere estrategia jendearen aurrean zabaltzen. Honela mintzo zaie parean egokitzen zaizkion euskaldunei: “lotsagarria ez da Portun fedegaiztokoaren azpian euskaldun kristiñau guztiak egotea?” (145 or.), “gizon orrek [Portunek, alegia] ez dau Euskalerra bide zuzenetatik eroango” (146 or.), etab.

[...] *oraingo aizkorak artzea ondo ez dalako*, euskaldun ta prankotarrak alkar barrero jo ez daien alegiñak egin bear ditut (36 or.; g.l.e.).

Bestelako analisi taktiko-estrategiko sakonagoren faltan, “ondo ez dalako” moralista-kristau horrek bideratuko du Agirreren eleberriaren alderdirik manikeoena eta, era berean, kristautze-prozesuan añaemenditarrek inbaditzaileekiko erakutsiko duten enpatia miresgarria.

Handik aurrera, Amando gotzainaren ustezko inpresio horrekin bat ez datozen euskaldunak zeharo irudikaturik geratuko dira narrazioan maltzurkiro jokutzen duten fedegabe berekoi malapartatu huts gisara. Eta inolaz ere ez, hortaz, inbaditzaile frankoei –eta haiekin batera datozen sinesmen berri akulturatzaileari– aurre egin nahi dieten zinezko euskaldun leial eta ausart bezala.

Iraulita uzten du, bada, Agirrek erdi zeharka edota oharkabean marraztu duen errealitatea bera, hankaz gora jarria eta errotik desitxuratu.

Horren ondorioz, konfrontazio-zelai aratza aurkeztuko du jagoitik eleberriak: *Añaemendi* inbaditu duten frankoak “onak” izango dira, behar bezalako kristauak⁶⁷, kultur eta sinesmen-berritzaileak, Jainkoaren agindupekoak eta euskaldunak onbideratzera etorriak –harako Hark berak bidaliak, antza–, eta orobat, ez inolaz ere euskaldunen etsai eta ez zapaltzaile. Eta ildo berean, haiekin bat dagiten añaemenditarrak –*de facto* Pétain mariskalaren gogoko *kolabo* huts ziratekeenak– santutasunerako bidean diharduten pertsonaia eredugarritzat finkatuko ditu Agirrek argazkian.

Aitzitik, franko kristau horiek aurrez aurre aurkituko dituzten euskaldunak, *Añaemendi*n bizi diren eta bizitzen segitu nahi duten menditarrak, burujabe eta sinesmen eta ohitura zaharretan iraun nahi dutenak, gaizto, traidore eta gaitzesgarri gisara irudikatuko ditu eleberriak.

[67] Baluke frankoen espiritu kristau horrek ere Agirrek garatzen ez duen interpretaziorako lekurik eta ifrentzurik. Adibidez, euskaldunek Adalbaldo hiltzen dutenean, Os-trabentoko gorte kristau guztia prest dago mendekurako eta añaemenditar guztiak akabatzeko: “Riktrudiseri gizon asko joan jakozan dolamen ta errukia erakustera. Kurrukarako itzak esaten zituen danak: *mendi guztiak erre ta kiskaldu*, gaiztakerirako bakarrik bizi zan *jende dongea bein betiko amaitu*: aizkora bat jasoteko altasuna eukan guztia Añaemendira eroan, *gizon basataiai euren leize zuloetaraiño jarraitu, ta il danak antxe basurdeak ilten diran gisara; ori gura eben*” (168 or.; g.l.e.).

Lehenago edo beranduago ezinbestean konbertitu beharrekoak, bada, zeren eta atzerria, hondamendia edo burua edekita ikustea baitute, horrela aitortzen ez bada ere, dilemaren beste muturrean.

Jakina, basati haien aitzinean bitarteko guztiak erabili beharko ditu hurbilen dabilkien elizgizon frankoak –eta ez da txikia horretarako Amandok bederen lortu duen hertsatze-indarra: berari zilegizko iruditzen zaio edozeini edozertaz galdekatzea, eta elizgizon eta konfessore bezala, inork ez bide dio informaziorik ezkututzen–, euskaldunak, inbaditzailearen aurkako guduak direla eta, arras desmobilizaturik uzteko eta “bakea” –bake militarra, esan bezala– finkatzeko egingizunaren ildoan jar daitezten⁶⁸.

Eta hain egingizun kristaua zen hartarako sareak hedatzean, ez zaio hitz on eta melengen artean amarru zitalik ere faltako gure gotzainari. Honela jokaten du, adibidez, Riktrudis gazte inozoarekin, hala haren ama Luziaren konplizitatea lortu ahal izateko (“Bai, zure biotzaren barri banekian nik: zuk lagunduko deustazu, bada; baiña zure Amak?” [36 or.]⁶⁹, nola, amaz oraindik mesfidati, aita eta agintari nagusienetakoa den Arnoldorengana zuzen iristeko (“morroi zarra Aitagana bialdu egi zu... *Amari esan barik* [...] *Amari gero esango jako*” [36 or.; g.l.e.]).

Baina hain ziren nabarmenak Amandoren amarruak⁷⁰ ezen, gorago ikusi bezala, Portunek berak ere iturri horretara begiratzen baitu egorearen inguruko barne-gogoeta egiten duenean, errudun-bila (53 or.).

Horren guztiaren azken xedea, agerikoa da, Arnaldo buruzagi –baina batez ere aita– denaren gogo-bihotzera iritsi ahal izatea du gotzainak hasieratik, eta, alaba bakarraren maitasunaren xantaiaz baliatuz, haren jarrera politiko-militarra aldaraztea; eta ondoren, haren agindupeko auznemenditarren borondatea frankopekotu eta kristautzea.

[68] Frankoen armen itzalpean ezarritako erlijio berriaren indar faktikoa baliatzen du egingizun desmobilizatailean, berdin “arima garbiko” Ubero ezpeletar nagusiaren laguntza izateko nola Mediolako etxekeoa edo beste inorena.

[69] Azpimarragarria da nola, orrialde berean, enfatizatu eta ziurtatu nahi dituen Amandok Riktrudisen leialtasuna eta morrontza: “Zeuk neure lanbidean lagunduko deustazu; ez da alan?” (36 or.).

[70] Geroago ere aitortuko du zertan aritu den eta zer lortu duen: “Neu joan naz Euskalerriko Loreagaz Ostrabentora, neuk bedeinkatu dot bere ta Adalbaldoren alkartuerea, ta ondo egin dodala-ta nago” (141 or.).

Horixe du Amandok, iraulketa ideologiko-erlijiosoaren eta akulturazioaren buruzagiak, helburu; eta bera agertuko da frankoen kolonizazioaren bitartekari⁷¹ eta euskaldun munduaren kontrako eragile ezkutua eta sibilino gisa. Hori bai, azpikari on guztien antzera, beti aitzakia on batekin jokatu; eta zer hobe “beti laguntasunen billa, Jaungoikoaren izenean” aritzea baino? (83 or.).

7.- Franko inbaditzaileek –Adalbaldo dukea ikur- garbi dute ez zaiela gerraren zama interesatzen, aski baitute agintean segitzearekin eta menperatzearekin dituzten euskaldunak bakean eta gudurik pizteko adorerik gabe mantentzearekin⁷². Gainera, kasualitatez bezala edo –bakearen eta gizaki guztien arteko anaitasunaren ideologia hedatzen du-eta erlijio berriak-, haien interes politikoaren defentsarako estrategiarekin bat dator kristautzearen hedapena bete-betean.

Osagai objektibo nagusiak daude, beraz, sinesmen arrotzaren penetratorako prest eta, armadak eta ezpatak tarteko, menditarrak inbaditzailea “onesten” has daitezzen gertu.

Lorpen gehiegirik ez zekarten kanpaina militar hutsak osatzera etorritako estrategia berriaren habiatzat Mendiola etxea aukeraturik, bertako pertsonaia larriak izango dira *federatzen* hasiko diren lehenetakoak.

Luziak ekingo dio, frankoez besterik diagnostikatu eta pentsatu arren, Riktrudisen –eta hortaz, Amando franko kristauaren– lerroetan jartzeari, alabak burutu duen manipulazio afektiboaren ondorioz⁷³.

[71] Horrexegatik, hain preseski, manatzen zaio gotzainari euskaldunen artean erlijio-soegiak ez diren mezuak eta mehatxuak zabaltzeko ardura (ikus 156 or.).

[72] Frankoen erregeak Adalbadori zuzendutako hitzak lekuko: “noiz edo noiz euskaldunak darabilgun gudea amaitu nai neuke [...] ta erabagi dot joan zaitezela zeu gureen artera, ta begiratu daizula prankotarrak urte ez daien beren errietatik kanpora, ta Amandok barriz zabaldu daiela menditarren artean albistea: ez dogula guk geiago euskaldunakaz gudarik nai ta baketu daitezela” (156 or.).

[73] Alabak aurreratu du jadanik nola balia dezakeen aitak dion maitasuna ere: “Zeuk esaten deustazu, Ama, nire Aitak maite nabela, ni ikustean daukala bere poztasun bakarra, neuk bere badakit Arnaldo zarraren biotz leiñargiak zenbateraino nabere maite, bere mingostasunen eztigarritzat naukala, bere aingeru jagole zerutarkotzat, milla bidar adierazoten emon deustanez. *Orregaitik, bada, nire esanak beragan indar pizka bat eukiko dabela uste dot; baiña ez baleuka bere, badaezpadan bere [...]*” (31 or.; g.l.e.). Eta errepikatu beharrik ez da nola erabili nahi izango duen, orobat, Portunek agertzen dion maitasuna ere aita gerrara joan ez dadin (ik. 32 or.).

Ondoren, Arnoldoren txanda etorriko da. Baina behiala euskal leinargiko buruzagi hoberena izandakoak –hori ere “Jesusen sinismenekoa nazanari eskerrak” (63 or.) nonbait– jadanik ez daki non dabilen, eta ez dirudi adinaren zama ilunagatik bakarrik denik⁷⁴.

Berak aitortzen duenez, “prankotarrakaz gudetan ibilteko amorratzen egon izan naz neure bizitza guztian” (63 or.); orain, aldiz, euskaldunen buruzagi izaten segitu arren, apaldurik sentitzen bide du iraupenkonfrontaziorako premia eta aski omen du “Euskalerrriak ostu jakozan lurak eskatuteko araudea galduten ez” bada (65 or.). Eta, Amandoren hitzak sinetsiz, nahikorik dauka “Jainkoaren legea”-ren bermea, kristau guztiek –inbaditzaileak barne– betetzen dutela sinetsarazten baitio gotzain frankoak: “Jaungoikoaren legea zuzen-zuzena da, ta bakotxari berea emoteko agintzen dau” (65 or.). Eta, itun berriaren sinadura gisa, prest dago garai bateko buruzagi euskaldun ausarta frankoen burua –inbaditzailea baina fededuna– besarkatzera joateko.

Hori bai, badaezpadako (prekauzio-)klausula bat markatuko duela ematen badu ere⁷⁵, *de facto* franko guztiak –erabateko etsai historikoak zirenak– besarkatzeko grina gorria piztuko zaio jarraian. Eta zozotu berrien ilusioarekin, “neu izango naz lenengo prankotarrentzat maitetasuna erakusten” (65 or.) aldarrikatzen du gizagaixoak kristautasunaren mezua –“*diligite inimicos vestros!*” delakoa– bereganatzean.

[74] Nabarmena Ozinbeltzeko batzarreko *bozketak* zioena: “batzuk guda zorrotz ta ikaragarrizko bat gura eben; beste batzuk (*ez geienak, baiña onenak bai*) [...] barrero gudetan asteko mugonean egozala ez eritxoen” (45 or.); Arnoldok, ordea, honako –gezur?– hau komunikatzen die Amando eta Adalbaldori: “prankotarra bakean iztea erabagi genduan” (64 or.). Are gehiago, bera hil ondoren gertatuko bada ere, jadaneko ez du agintari bati etorkizun laburrean jazo daitekeena aurreikusteko eskatu behar zaion sen politikorik ere. “*Auñemendi guztia* sutan dago, gorrotozko sutan. *Erri guztiak* bekaizturik aurkituten dira. *Burrukarako deadarrik* galgarrienak urteten dabe *euskaldun askoren bularretatik*” (131 or.; g.l.e.), frankoen aurkako “egiteko entzungarri bat” (*idem*) eskatzen ari ziren auñemenditarrak, “prankotarren kontra guda gogorra, eten bagea, betikoa, asteko ordu ta garaia etorri zan” (132 or.), baina ematen du Arnoldok ez duela jada sumatu ere egiten deiadar haren arrazoia, hots, “euskaldun agintari baten alabea [berea, alegia], alaba bakarra, aberatsa, argia ta ederra, bere aide ta ogipeko bazukaz, prankotar bategaz ezkondu teko asmoan erbestera joan da” (131 or.; gurea da parentesi barnekoa).

[75] Hots, “prankotarren besoetan ez naz egundo egon, baiña... *etzara zu besteak langoa: zulango gizonakaz adiskide izan nai dot*” (64 or.; g.l.e.)

Erreparatu bekio, berriz ere, Agirreren “logika” narratiboan egiten den presakako behartze-lanari: Arnoldo buruzagiak Adalbaldo frankoa besarkatu du –edo, nahiago bada, harekin adiskidetu da– beste franko inbaditzaileak bezalako ez omen delako, zeren eta euskaldun agintari gotorrak inolaz ere ez bailituzke, antza, etsaiak besarkatuko. Berehalakoan, haatik, franko inbaditzaileak maitatzen hasteko lehena agertu da gure buruzagia.

Ez etsaigorik menderatzaileekiko, beraz, eta ez gerrarik kolonizatzaileen aurka; eta guzti-guztia, sakonagoko beharko zukeen baina orrialde eskaseko azalpena besterik hartzen ez duen azaleko lerroalde pare baten ondorioz. Edo bestela esanda, botere militarreko agintari franko batekin eta botere eklesiastikoko gotzain frankoarekin izandako elkarrizketa gaitz –euskaraz? erdaraz? mordoiloiz?– baten ondorioz.

Larria bezain epifanikoa, baiki, Arnoldoren bilakaera, izan ere, analisi politiko objektiboaren ildokoak ziren arrazoiak, orain, *mutatis mutandis*, “arima barruan daukadazan atsekabe” (65 or.) espiritual bilakatu baitzaizkio mirakulutsuki, inbaditzailearen aurkako guda guztiak apeta hutsezko edota haietan aurretik bizitza galdu zuten semeen saminagatik soilik gertatu izan balira bezala.

Nonbait, egiazko fede berriaren eraginez sortutako transmutazio miresgarria. “Eta kolonizazioaren onarpen erreala eta akulturazioaren lehen urrats erabakigarria”, pentsa lezake irakurle *bizkaitar* maltzurak.

8.- Aurreratu bezala, behin planteamendu bikoiztua irekirik, kriminalizazioa eta deslegitimazioa egokituko zaizkie Portuni eta hura bezalakoei eleberrian, haiek baitira konkistatua izanagatik amaitzear dagoen mundua ordezkatzan duten azken “gaizto ofizialak”⁷⁶. Harik eta, kasurik hoberenean, kristau daitezten arte, bederen.

Baina edozein modutan, Ozinbeltzeko Portun Otxoa hasieratik da eta gero ere izango da –Agirrek bizkarreratu nahi dizkion berekoikeria eta inbidien eragina gorabehera– egoera politikoa ongien aztertu eta ulertzen dutenetakoa, eta, are, horrelakoetan betidanik idatzi eta esan denari segituz⁷⁷, era koherenteenean ere erantzun nahi duena:

[76] Primario eta basati huts gisara irudikatua, Portunen kasuan hori ez da eragozpen berehala ohar dadin zer-nolako izaera egokitu zaion Historiaren errelato maniekoan: “kristinauak [...]. Eurak ei dira onak eta zintzoak” (52 or.).

–[...] nik esan nituan gauzak urten dabe argitara –zirautsan Portunek etxerik etxe–. *Arnoldo* salduta egoan ta bere Sorterria saltzeko prest, eriotzea etorri jakonean. Bakotxari berea emon bear jako, ta nik ezagututen dot *gaztetan Errizalea izan zala; baiña zartzara*, bere alabeagaz txotxinduta, *Riktrudis andi ikusteagaitik, errege usaiñekoakaz ibilteagaitik, eta elizgizon arrotzaren esandeak entzunda, edozetara jarri zan*. Ta Aita ta Ama il arren, Riktrudis petralak ez dau gero aztu gurasoen erakutsia, ta ekarri deutsa orain Euskalerrriari izugarrizko lotsaria ta kaltea. Mendiola ta bere lurrak prankotarrenak izango dira gaurtik aurrera, *gure etxean geuri agintzera sartuko jakuz arrotzak, ekarriko deuskuez euren oitura gaiztoak, eta agur gu ta gure gauzak, al dogunak al doguna egiten ez badogu*. Aitorren seme, *altxa bear gara danok; aginak erakutsi bear deusaguz arrotzari, ez dau emen erbestekok oiñik ipiñi bear* (132 or.; g.l.e.).

Eta beranduago bada ere, haren ikuspuntuaren hobespenaz mintzatu tuko dira auñemenditar *gehienak* Riktrudisek buruzagi frankoarekin ezkondu ahal izateko alde egiten duenean. Orduan, dirudienez, esnatu eta bat egiten dute –baita neskatoaren ahaide askok ere⁷⁸– Portunen analisiak erakusten duenarekin:

Egia ziñoan Portunek, Auñemenditarren iritxiz: Mendiolakoak ondamendira eroien Euskalerrria (132 or.; g.l.e.).

Guztiarekin ere, etsituaren aitzakiaren soinua dute, izatez, euskal agintari zenbaitek inbaditzaile frankoen aurka ez jokatzeko erabiltzen dituzten arrazoiek.

Ubero zaharrak darabilena, ziurrenik, prototipikoa. Hau da, hasieran anekdotikotzat hartu nahi du arrotz eta kristau den aldetik bi aldiz inbaditzaile zaien frankoaren eta sinesmen berriak kutsatu gabe segitzen duen euskaldunaren arteko borroka:

[77] - Marko Aurelioren hitzak adibide: “Defentsa-modurik hoberena, haiek beretua ez izatea da” (*Oldozpenak*, 6. lib., 6. atala [*Meditaciones* 1977, 113 or.]).

[78] - Eleberria utzi eta Historia larrira iraganez, frankoekiko gorrotoari –inbaditzaileen aurkako lehen jarrera defentsiboari, alegia– egotzi zion Baionako bikario kristaua zen Menjouletek arrazoi nagusia: “Quelques proches de la jeune fille s’opposèrent à ce projet, par un sentiment de haine pour le sang français, peut-être aussi parce qu’Adalbaud était chrétien” (Menjoulet 1869, 24).

–Nik neure eritxia esango dot [...] gizon bik muturketa bat izan dabelako, Euskalerra guztia ez da barrero odoldu bear, euskaldunen izenari ta lurrari ikutu ez jakonean (40 or.).

Ezertaz ohartzen ez denaren gisako epaia eman arren⁷⁹, geroago, aurpegi-estalkia kendurik, Mendiolako Arnaldo bezain kristau –eta bertako sinesmen zaharrekiko etoi– agertuko du bere burua, “Prankotarraren alde!” (41 or.) erabakiko lukeela esan ondoren. Izan ere, Portunen “iraina”⁸⁰, frankoaren aurka bainoago, “neure Jaun Jesukristo, Jaungoiko egiazko bakarra” delakoaren kontra izan zen, haren ustez.

Jakina, darabilen diskurtsoaren legitimatze aldera, Diego Etxalar delakoaren erantzuna kontrajarri dio Agirrek berehala:

–[...] nik, euskaldun bat eta prankotarra burrukan ikusiko banitu, geiagoko barik jo buruan ta amaituko neuke erbesteko gizona (40-41 or.).

Baina erantzunaren bortitza gorabehera, añaemenditar gehienen iritzia jasotzen bide duen ikuspuntua aurkeztu du segidan Etxalarrek:

–[...] Atzerritar guztiak lurpean sartu artean ez dago emen gauza onik (41 or.).

Eta lehen unean Agirrek Etxalarren irizkide direnen kopurua lausotuxe uzten badu ere (“Ondo esana! Ondo esana” –diño *askok*” [*idem*; gurea da letra kurtsiboa]), berehala zuzenduko du, agerian utziz batzarraren daudenek aho batez onetsi dutela Etxalarren iritzia. Hain zuzen ere, Ubero zaharraren kristau-militantziaren aitopenen ondoren⁸¹,

[79] Gogoangarriak haren hitzak: “nigana baletor erabagi baten bila, egi zuzenaren alde erabagiko neuke, zein euskalduna ta zein prankotarra dan begiratu barik” (40 or.).

[80] Iraindua izan omen zenaren ahotik isurtzen denaren arabera, iraina egiteko gogoa baino gehiago, frankoa espioiren bat ez ote zen galdetzeko premia datza Portunen hitzetan. Izan ere, lehendabizi “prankotar lapur” (58 or.) bezala kalifikatu zuen arrotza bere lagunei mintzo zitzaizela, baina ez Adalbaldori zuzenean jaurtikiz; are gehiago, Portunek egia zioela iruditu zitzaion frankoari ere: “gogoratu jatazan gutarrak euskaldunai egindako lur ostute eta beste dongakeriak, eta alderen batetik *egia ziñoala neritxon*” (*idem*; g.l.e.). Bigarrenik, frankoa sutzen hasi omen zuen esaldia ere Portunek berriz lagunei zuzendutakoa izan zen: “Eta Elizara doia gero bera, Elizara astegun buru zurian. Esaten dot bada nik guzurtiak dirala prankotarrak eta guzurra euren sinistea” (*idem*). Portunek garbi asko bide zekien elizara jai-egunetan baino ez zela joan behar izaten, ez edonoiz; zerbait susmagarri zegoen, beraz, Adalbaldoren portaeran. Frankoak esan uste zuen gezurretik aurrerakoa orokortze-logikaren aplikazioa baino ez zen izan, hortaz: egia esatea prezeptiboa duen erlijio bateko kideak gezurra esaten badu, haren erlijioa bera gezurra delako izango da...

“jende guztia” (*idem*) hasi zitzaion hitzez eta keinuz oldartzen⁸²; batzar-turik zeuden guztiak, alegia, horrek egoeraren tentsioaz ematen duen argazkia ezin gardenago gelditzen delarik. Hori bai, berehalaxe zehaztu zuen Agirrek noraino ziren batzartutako gerlariak, gizon eginak izan arren, erraz erabiliak eta manipulatuak izateko modukoak, eta baita, behar bazen –eta hagiografiak ez zuen besterik behar–, iritziz aise aldatzekoak ere⁸³.

Nolanahi ere, inbaditzailearen aurkako ohiko fronte añaemendita-rreko defekzioak hasi baino ez ziren egin Uberorekin⁸⁴. Jarraian, Arnoldo inplikatu da desmobilizazio-lanean, bere prestigio guztia eta Agirrek ezpainetaratu dion hizkera jadanik ebanjelikoa⁸⁵ baliatuz⁸⁶:

- [81] “Prankotarrak atara dau Jesukristogaitik arpegia, ta neuk bere bai, emen, edonun, noiznai” (41 or.) erantsi zuen Uberok.
- [82] Kristauen aurkako mehatxu-egoera irudikatu nahi izan zuen Agirrek hartan: “Jende guztia asi zan gora-goraka ta garraxika, mingain danak iñakin ta erasorik oker, gaizto, zorrotz ta mingarrienak esan, ta eztarri guztiak oiua ta deadarrik garratzenak bota zituen; etzinda egozan gudari asko euren lekuetatik jagi ta batzarreko nagusien inguruan jarri ziran [...] Zer zan ango lazka ta matasea!” (41 or.).
- [83] - “Ozinbeltzera batu ziranetik geienak onetariko gizonak ziran: biotz-andikoak, euskaldun guztien antzera indartsu ta azkarrak, mendian jaio ta azirikoen taiuan” (44 or.; g.l.e.). Ez zegoen, beraz, haietaz mesfidantza izaterik. Hori bai, agintariek ziotenaren aurrean umeak baino zintzoagoak –eta edozertara eramanak izateko errazak, esan nahi baitu Agirrek–: “baiña bai agintarien esana errez siñistu, ume batek gurasoarena legez. Ta bein siñistu ezkeru, olango gizonak siñismenaren alde ipinten dabe laster adimen ugartua, euren biotz andia... ta ukabil gogorra” (45 or.).
- [84] - Uberoren pertzepzioa mutur batetik bestera aldatuz joango da Riktrudisen traizioaren ondoren. Honela esan dio elkarrizketa mamitsu baten erdian gotzainari: “Ezin geinke guk prankotarren artean lagunik euki” (141 or.); eta Amandoren galderaren aurrean (“Orretan zagoz zu bere? Benetan diñostazu?”), ez du zalantzarako tarterik uzten: “Orretan nago, ta bene-benetan esaten dot” (*idem*). Eta guztia adierazteko, ohartu ere egiten da izan duen aldaketaz: “Ara nondik len bere alde izan ta, gaur u...” (143 or.). Dena den, geroago ere erakutsiko du ordura arteko uzkurkeriaren ildoko seinalerik Gaixpar morroiaren hitzak bere egitean: “emen entzun doguzanak entzun ezkeru, ezingo gara gudetara joan” (145 or.).
- [85] Kristo eta *Legearen* jatorriarekin egiten duen identifikazioa erakusten duten pasarte-teen oihartzuna du Arnoldoren “bada neuk diñotsuet” horrek (ikus Mateo 5, 21-44). Analogia areagotze aldera, eta Giussani neokontserbadore katolikoak ohartarazi be-zala, “ante todo Jesús se identificó con el origen de la Ley. La palabra Ley era el sinónimo que más empleaban los fariseos para referirse a lo divino. Decir que algo era según la Ley quería decir que era según Dios. Para quien le escuchaba debía de ser algo inaudito oírle repetir: «Se dijo... pero yo os digo» [...] Jesús modifica lo que para los fariseos representaba el comunicado divino al hombre, identificándose de este modo a sí mismo con la fuente de la Ley” (Giussani 2007, 298). *Lege berria* (frankoena eta kristaua) aldarrikatzean erabilitako hizkera hori medio, Kristo berri-aren irudikapena eta balioa ematen dizkio Agirrek Arnoldori euskaldun fedegabeen

–Bada neuk diñotsuet, orain batzuek asmau ta asi nai daben guda onetan, nik eta nireak ez dogula aizkora bat artuko, ez dogula arri bat jaurtiko prankotarren kontra (42 or.).

Eta gehiago oraindik: gudian parte ez hartzeaz gainera, gaizki ikusiko du –kritikatuko du, etsaitzat hartuko du– hartaratzen den oro:

–[...] ta guda onetan asten danari begi txarrakaz begiratuko deusadala (*idem*).

Agirrek horretarako eskaintzen dion aitzakia, jakina, tokiz kanpoko “egia” subjektibo bezain arbitrario batekin lotua dator⁸⁷, eta ez, inondik ere, ordura arteko gudak sorrarazi dituen errealitate historikoarekin eta inbasioekin, berdin frankoenekin zein sinesmenen esparrukoekin.

Oraindik agintari-maila izateko⁸⁸, atzenduak ditu Arnoldok, agidanez, egoerak aztertzeke moldeak eta hizkuntza, eta ahaztuegia nonbait estrategia eta taktika oro.

Horretan askoz ere buruzagiago, zuhurrago eta eskuzabalago agertuko da fedegabekoen aterpe⁸⁹ omen zen Ozinbeltzeko jauregiko Otxoa –Portunen aita– Arnoldori eta gainerako batzarkideei honela zuzentzen zaienean:

–[...] Sinismenak alde batera bota daiguzan. Denok gara euskaldunak, eta alkarregaz sarri Euskalerrriaren alde jokatu dogunak. Nik eta neureak ikusiko dogu biar zer egin bear dogun; baiña bitartean Ozinbelzko atea zabalik daukazuz, ta sartuko zara bertan apaitara ta lotara. Ta ez bakarrik zu: sartu bitez gaiñera euskaldun agintari guztiak: danentzat egongo da zer jana ta nun etziña, ta baita morroi gudalarientzat bere (42-43 or.).

aurrean.

[86] “Euskaldun ontzat naukazue? [...] Ukatu deusat nik iñoiz Euskalerrriari nire beso ta nire odola?” (42 or.) dira batzartuei zuzentzen dizkien galderak bere zintzotasuna erakusteko eta euskal munduari traiziorik egiten ez diola aldarrikatzeko.

[87] “Epaia beti egiaren alde emon bear da, ta Aitzbarrengo gertaldi orretan egia euskaldunaren kontra dago, edo garburoago esateko, euskaldunarena da errua” (42 or.).

[88] Eta Portunek ere badaki nolako indarra duen haren hitzak: “Berak esan baleu «gudara!» euskaldun guztiak gudara joango ziran” (52 or.).

[89] “Ozinbelzko jauregia ez da kristoren sinismenekoa, beste euskal etxadi asko ez diren legez” (42 or.), dio narratzaileak.

9.- Nondik eta noiz etorri zaion Mendiolako Arnoldori kristautze epifanikoa irakurleak jakingo ez badu ere –gorago ikusi den bezala, elizara ere ez zen joan “iragan larunbatean”, alabarekin batera prezeptua betetzera, baina, hori bai, aspaldikoa zuen etxean Amando eta bestelako kristauei abegi ona egitearena⁹⁰–, kristau militante agertzen da jada. “Gidoiak eskatuta”, noski, narrazioaren gidoiagatik beragatik ezkutatzen baita hain preseski garrantzizko datua, hots, aspaldiko kristaua dela Riktrudisen familia hurbil guztia⁹¹.

Honela, ondarrutarrak isildu egiten du transzendentziarik gabekoa dirudien xehetasun hori eta amarrutsu jokatzeko irakurleak Arnoldoren inflexio-puntua, haren erabakiaren –hau da, auñemenditarren zilegizko defentsa-guduaren aurka jokatzeko eta frankoekin adiskidetzeko dakartzan erabaki larriaren– arrazoia Portunek Adalbaldorekin izandako portaeran ikus dezan, eta ez lehenago. Alegia, Agirrek aditzera eman nahi du ordura arte Arnaldo gainerako auñemenditarrak bezalakoxea izan dela –inbaditzaile frankoaren etsai, hain zuzen–, eta Portunen usitezko berekoikeriak eta gezurrak aldarazi diotela pentsamoldea eta, ondorioz, baita jokabidea ere, aurrerantzean franko kristauak anaiatzat ikusten hasiko delarik.

Amarru hori sustatzeko diskurtsoa ere elizgizon frankoarena bezalakoa bilakatuko da unetik unera:

–[...] Osinbelzko jauregia [Portun fedegabearena] ez da Kristoren siñismenekoa [...], ta jauregi orretako semeak prankotarra kristiñaua delako iraindu dabenean, ni iraindu nau ta beste kristiñau asko iraindu gaitu, kristiñau bizi ta kristiñau il nai dogulako (42 or.).

Eta orduan agertuko dira mugak eta jasoko dira harresiak, baina ez frankoekikoak, euskaldunen artekoak baizik. Eta ondorioz, gizartearen zatiketak eta mapa politikoaren berregituraketek errazago eta lauago utziko diote frankoari kolonizaziorako bidea.

[90] “[...] edonoiz dagoz Mendiolako atea zabalik, edozeinek arkituten dau etxe atan abegi ona: erbestekoak, eta euskaldunak ez diranak bere bai, Kristiñauak dirala ta ez dirala... Badabil or kristiñauon elizetako nagusi bat, Amando edo dana-dalakoa...” (54 or.).

[91] Agirrek erabilitako kroniketan aurretik kristauturik agertzen dira gurasoak: “Son père Ernold [Arnaud] et sa mère Lichia ou Lucie, étaient l’un et l’autre de bons et fidèles chrétiens”, dio Menjouletek (1869, 23).

Nonbait etsai inbaditzailea lasai ez lagatzea ohikoa izan delako⁹² hartzen du Portunek –eta gainerakoek ere bai, ziur asko– harriduraz Arnoldoren jarrera hura⁹³, objektiboki handiegia baitzen kristautu gabeko gizarte batean etsaiekin batera etorritako erlijioari baino ezin zezokiokeen erdeinu huts batetik “erru” politikoak aipatzera eta leporatzera pasatzea.

Baina aski arrazoi handi deritzo horri Arnaldo konbertsoak frankoen aurkako defentsa-altxamenduei uzteko:

–[...] Kristiñau gudalariak, egia jakin dogun ezkerro, ez daukagu emen zer egiñik: bakotxa geure etxera goazen ta Jesusen arerioakaitik erregutu daigun (42or.).

Zehaztu beharrik ez da: kristautasunaren eta Auñemendik sinbolizatzen duen horren artean, Arnoldok garbi utzi du zeri emango dion aurrerantzean lehentasuna, horretarako politikoki era adiskidetsuagoan jokatu behar badu ere etsaiekin herrikideekin baino.

Jakina, batzarrera joandako inork ez zekien orduan hurrengo egunean, kasualitatez edo, bilduko zela Arnaldo buruzagia –eta Riktrudis-Amando eta Adalbaldo etsai franko kristauekin, eta, are, nolabaiteko estrategia antolatuko zutela arlo “pastoral” hutsera mugatzen ez zen lan hura –“Jesusen artaldera etxadi guztiak ekartzeko” (60 or.)– egin ahal izateko. Eta garbi ikusiko zutela, aurreratu bezala, “orretarako bakea bear dogu[la], luzarorako bakea” (*idem*).

Bestela esan, frankoen estrategian buru-belarri sartua geratzen zen euskal buruzagia, eta hartarako plangintza oso zen zorrotza: atzerritik etorritako fedea hedatu ahal izateko, euskaldunek atzerritar inbaditzaileekin zituzten liskarrak geldiarazi behar zituzten ezinbestean. Eta hartan jardungo zuten Amandok –Elizak–, Adalbaldok –frankoen agintariak⁹⁴– eta Arnaldok –euskaldunen agintariak–, konfabulaturik⁹⁵.

[92] Baina ez beti, egia esan. Adibidez, Riktrudisen afera eta gero, “gure Erritik kanpoetan ibili [ondoren] zeregintxu batzukaz” (141 or.), Amando Auñemendira itzultzean, ezikusiarena edo egin zuten euskaldunek gotzainarekin: “Ez eutsen abegi onik egin, baiña txarrik bere ez. Arpegirik ez emotea zan guztia, apezpikua alde batetik ikusi ebenean, beste aldetik iges egitea, agurrik egin barik” (139 or.).

[93] “[...] Neurea dala errua berak! Eta zergaitik? Nik prankotarra iraindu nebalako? Ta zer?” (52 or.). Gainera Portunek argi du ez dela bera ezeren errudun: “Uste dau Riktrudisek gudan asi bear dogula; gogoratu jako bere Aita orretara jarrita badago, iñok ez dabela atzeratuko; *ni nabillela guda billa ta neure eskuetan egoala gudarik ez izatea esan deutse [...]*” (53 or.; g.l.e.).

Konploterako hariak, edonola ere, lehenagotik zetozen ehuntzen, Arnoldok berak itun esplizitua egin eta gero aitortuko zuenez,

–[...] Amando jauna, *lagunduko deutsut orain artean baiño geiago ta obeto* (66 or.; g.l.e.).

Baina inork ez bide zuen sumatzen hori.

Agerian zegoen, haatik, Ozinbeltzean⁹⁶ batzartutako auñemenditar agintari gehienek zer nahi zuten⁹⁷:

Gudari nagusien artean iritxi bi egozan: *batzuk* guda zorrotz ta ikaragarritzko bat gura eben; *beste batzuk* (*ez geienak, baiña onenak bai*) Arnoldok itz egin eban ezkerotik, *barrero gudetan asteko mugonean egozala ez eritxoan* (45 or.; g.l.e.)⁹⁸.

Nolanahi ere, arrakastatsu gertatuko bazen eleberrian bakearen eta santutasunaren hautua, ezinbesteko zuen haren gidoiak auñemenditarren desmotibazioa areagotzen zihoala erakustea eta konbertsoen de(sa)fekzioak nabarmentzea. Narrazioak egiantzekotasunean galdu behar bazuen ere, alegia. Peru, “koblakaririk onenetakoa” (45 or.), da esanguratsuetako bat, baina ez Arnoldok konbentzitu duelako (Portu-

[94] Amandok aitortzen duenez, Adalbaldo “aspaldietako neure adiskidea da, kristiñau bene-benetakoa” (60 or.).

[95] Konfabulazio horretan, Riktrudisen hitzak (“gizon guztiak alkar maitatuteagaitik, poz-pezik neure odol guztia emongo neuke” eta, areago, “prankotarrak eta gu adiskide izateagaitik ontxe emongo neuke neure bizitzea” [66 or.]) aitak izan zitzakeen zalantza apurra ezabatzerako datoz. Ezin da ahantzi Riktrudis ordurako guztiz “irentzia” zuela Amandok bere federako: “se laissa pénétrer par les rayons divins –kronikariek diote–, como une étoile accepte la lumière d’un astre plus brillant” (Menjoulet 1869, 24).

[96] Agirrerren jolas manikeoen otarrean sartu behar dira *Gaizkiaren* presentzia dramatikoa indartzera datozen honako toponimo hau, bertako jauntxoaren deitura (“Otxoa”), tokiaren deskribapena (38 or.), etab.

[97] Mendiolako Arnoldoren ildoko euskaldun “zintzo” legez agertzen dira Saratzuko Lope, Ametzuko Gaispar, Etxegoieneko zaldun gaztea, Urdatzeko Gonzalo nafarra, Ubero Ezpeletakoa eta, frankoen arazoa zeharo garbi ez badu ere, Diego Etxalar bera, ondoko aipamenerako “beste batzuk (*ez geienak, baiña onenak bai*[...])” horien buruzagia, alegia. Euskaldun kristau ospetsu gehiago zerrendatuko ditu beranduago Amandok berak: “Araneder, Askonbegi, Arbide, Sasiondo, Aritzemendi, Ibaiñeta, Aialde, Otegain ta beste” (145 or.).

[98] Kontrajarritako bi “batzuk” orekatzaile horiekin amarru erretoriko xelebrea darabil Agirrek irakurlearen aurrean, batetik, gerraren aurka zirenei besteenak baino arrazoi eta balio moral eta intelektual garaiagoak egozteko eta, bestetik, eta bidenabar, gehiengoak hartu –nahi– zuen jarrera zeharo neutralizaturik geratu –behar– zela “uler” zezan.

nek ohartarazi bezala, buruzagiak “ezetz esan dabelako, etetz beste guztiak bere” [52 or.]). Ez; ezkutaturik du padar koblakariak arrazoia, berehala ikusiko den bezala. Arnaldoren antzera, hain zuzen.

Eta oraindik hatu kristaua agerian ipini ez duelako eta garai batean taxuzko koblakari bezala jokatzeko zuelako edo⁹⁹, orain inbaditzailearen aurkako gudura joateko erabakia hartua duten gizon gazteek adorea eta kemena indartzeko kantak eskatu dizkiote¹⁰⁰. Baina, nonbait zaharra eta etsia delako¹⁰¹, aldatu egin zaio aldartea, eta harrigarriki haren mezua arras da desmobilizatzailea:

Gaur badakit ez dala ondo/ Zentzun baga zaunk eitea/ Ta bakean doianari/ Ortz-azurrak ezartea.// Geldi orain, menditarrak,/ Bakotxa geure lekuan:/ Elduko da ereti ona,/ Ta aupa mutillak orduan!” (48 or.).

Eta berriro ere, mailu baten gisan, Amando gotzain frankoaren “arrazoi” bera inbaditzaileen aurka ez jotzeko: “badakit ez dala ondo”. Eta eranskin modura, frankoak “bakean doaz”-ela iradoki.

Susmatzekoa zen legez, iritzi- eta jarrera-aldaketa horien guztien benetako arrazoia –orain artean eta oraindik ere isilik izandakoa–, padarra ere kristau egin izan dela bide da¹⁰².

Oraingoan gainera, behialako plazagizon berriemaile guztiei onesten zitzaien autoritate eta indar intelektualaz baliatuz, Amando gotzainarena baino eliztarragoa zabaltzen ari da mezua:

[99] Jarrera eta erabaki berria kantatu aurretik, honela gogoratu ditu beste garai batean frankoen kontra egindakoak: “Zenbat aldiz berotu dot/ Euskal gizonen biotza!/ Zenbat bidar ikusi dot/ Nire ondoren eriotza!// Zenbat aldiz odoldu dot,/ Neure aizkora zorrotza!/ Zenbat aldiz amaitu dot/ Bizar gorridun arrotza!// Zenbat bidar ikusi dot/ Gure mutil menditarra,/ Besoetan ipiñiaz/ Ekaitz guztien indarra!// Begietan tximistea,/ Ta infernuko su ta garra.../ Ta aren aurretik igesi/ Mendiz beera prankotarra” (47-48 or.).

[100] “Ez gaikezuz geiegi oillotu, biar edo etzi iñoiz baino gogorrakoak izan bearko doguta. Ea, esaiguzu gudarako eresi bat” (47 or.).

[101] Berak urteen poderioz irabazitako zuhurtziari egotzen dio zioa: “Bitartean idoro dot/ Urtien erakutsia” (48 or.).

[102] Ureekin ustez irabazitako zuhurtzia gorabehera, horrek berak eramango du gero heriotzara, Riktrudisen traizioak añaemenditar oro sukarturik duenean, zer bururatu, eta “eliza aurreko enparantzan, gizon aserre askoren erdian, asi zan” Mendiolarren alde kantatzen (133 or.). Jakina, “il eben Peru gizagaixoa, salkindarien lagun oker ozkil bat zala-ta” (*idem*), eta inork ez zuen protestarik egin, alderantziz baizik, añaemenditar guztien ageriko onespina izan baitzuen zigorrak: “«Ondo egin jako -ziñoen danak- berea da errua, barritsu zitala ez izatea baiño ez eukan»” (*idem*; g.l.e.).

Mendi tantai, errekondu,/ Ibai zabal ta itxasoak,/ Gizonentzat
sortu ditu/ Gure Egille Jaungoikoak.// Beragaitik bizi naz ni,/
Beragaitik gara euskaldun.../ Gauza guztien gaiñetik/ Euskal-
dunok maite daigun.// Maite dot nik sorterrria!/ Maite neban
emaztea!/ Baiña bien gain gaiñetik/ Maite dot neure Egillea!
(49 or.).

Horrekin guztiarekin, eta fluktuazio logiko-narratibo zenbaitekin bada ere, Agirrek transmititzen duena elur-ura baino aratzagoa da: isilka eta gordeka, agintariak eta orduko añaemenditar *intelligentsia* izan zitekeena, guztiak egiazko egiaren bidean zeudela, isilkako kristauak zirela; eta franko inbaditzailearen aurkako gudua piztera zihoanean, orduan erabaki zutela bereganatutako fede berriaren hautua ezkututzen ez segitzea eta, hura argiratu, añaemenditarrak desmobilizatu eta berrrokatzetik geldiaraztea.

Puntu horretan ekiten dio eleberriak bereziki interesgarria ez den atal hagiografiko gero eta itxiagoari eta, orobat, ondorio kristau zuzenak erdietsi behar dituen pedagogia eklesiastikoaren jezteari.

10.- Lar jabeturik egin izan ez balu ere, oso da ohargarria Agirreren ikusmolde ideologiko-narratiboak XIX. mende amaierako errealitateari egiten dion –diogun gordinki– arbuioa edo, apalago nahi bada, ezikusia-rena¹⁰³.

Egia da ez dagoela guztiz garbi noraino ulertu eta atzeman –nahi izan– zuen Elizaren eginkizun akulturatzailea eta agintaritza politikoa-
ren kolonizazioarekiko uztarketa, eta ilun dela oraindik zenbateraino ohartu zen bera ehundura hartan objektiboki betetzen ari zen legitima-
zio-lanaz.

[103] Ez, ordea, hizkuntzaren errealitateari, hartan zuzenago agertu zen ondarrutarra, nahiz eta euskarak edo euskararen aitzakiak –adibidez, Riktrudis protagonista euskararekiko leial agertzeak– gainerako traizioak ezkutatzeko tresnatzat ere balio izan zion eleberrian. Edonola ere, ondoko pasartean islatu bezala, ikuspuntu argia zuen Agirrek euskarari zegokionez: “Zeintzuk dira, gaur dan egunean bertan [1897an, alegia], gure Euskalerrri errukarriaren samiñak gozatuteko lanean diarduen gizon berezkor argitsuak? Euskal izkuntza ederraren gaiñean bear dan era ta sakontasunagaz lan egiten daben gizonak zenbat dira? Iru edo lau, edo bost edo sei: edozetara bere gitxi: beste guztiok bataren edo bestearen eritxikoak gara; baiña geure aldetik ondar ale bat ez dogu ipinten...” (44 or.).

Esanguratsua, dena den, bosgarren kapitulua, “Gizon arrotza” izenburuarekin eskaintzen duena.

Bertan, kristautzearen xedea duen Elizak –Amando apezpiku akulturatzailearen ahotik– laguntza eskatzen dio agintari politiko inbadi-tzaileari –Adalbaldori¹⁰⁴– “Euskalerrri guztia Jaunaren siñismenera” ekartzeko.

Esana dugu jada Amando Euskal Herria kristautzera etorritako apezpikua dela, eta horixe duela, berak horrelatsu aitortua, egokitu zaion eginkizun historikoa:

–[...] lan andiak daukaguz emen Jesusen ikastegiko semeok, eta *Euskalerrri guztia Jaunaren siñismenera ekarri artean, lan egin bear dogu gogotik. Orretara etorri naz ni ona* (59 or.; gurea da letrake-ra etzana)¹⁰⁵.

Agerikoa da ez dela bera inguruetan dagoen elizgizon kristau bakarra, baina argi du, gotzaina izanik, bere zeregina ez dela besteena bezalakoa, garrantzi gehiagokoa baizik, eta laguntzaileak behar dituela eginkizun larri hartan.

Eta hartarako, ararteko-lana bainoago, lupukeria politikoraino iristeko prest azalduko da hasieratik¹⁰⁶, alegia, etorri berria den agintari franko gaztea, Arnoldo buruzagi euskalduna, Riktrudis alaba eta lauak elizan biltzen diren lehen unetik beretik, eta elkarren artean ulertzeko

[104] Anekdotikoa lirudikeen arren, botere hegemonikoaren jabe sentitzen diren jaun-xoen ohiko portaera harroputz arruntarekin irudikatu zuen Agirrek Adalbaldo gaztea. Alegia “zelai batean gizon talde andi bat [...] indar neurketan burdin luze bat jaurtika” ikusi zuenean, zer bururatu eta, “*danen artetik igaro nintzan*”, hori bai, haziera oneko paternalismo-puntuak eramanda, euskaraz jakin gabe, “egun onak emonez” (58 or.; g.l.e.).

[105] Krudelagoa da haren kronikariek diotena: “*Il voulut aller porter à cette nation la lumière de l'évangile, trop heureux, disait-il, s'il y trouvait la palme du martyre!*” (Menjoulet 1869, 17; g.l.e.).

[106] Eta amaieran ere bai, erantsi beharko litzateke segidan, lupukeria gordinarekin (ondoko pasarteetan ezin argiago) eta, aldi berean, frankoei laguntza zuzena ematearekin –haien aldeko espioitza egitearekin– lotu behar baita Amandok Riktrudisi aitortzen diona, hots, errege frankoaren agindua betetzen dabilen Adalbaldori “bein baiño geiagotan emengo albisteak bialdu deutzadaz” (127 or.). Beraz, Riktrudisen inguruko informazioa, batetik, eta auñemenditarrei buruzko informazio politikoa, bestetik, inozoa edo litzateke bestelako interpretaziorik ateratzea konfidentziazatik.

erabili ohi diren kode linguistiko-kulturalen desberdintasuna eragozpen ez zelarik.

Adalbaldo dukeak, edonola ere, jaiotzetik ditu uztarturik bere baitan sinesmenaren mundua eta politikarena, izan ere “done Jertrudisen loba ona, prankotarren erregetxeko semea, Sijeberto eta Ernulfo kondeen ta Alando Remis-ko Lenapezpikoaren anaia” baita (57 or.). Badaki, beraz, norekin interesatzen zion aritzea eta nola beharko duen. Eta Agirrek maitasunaz dioena dioelarik ere, interes politikoko ezkontzarik ere ez zuen ziurrenik baztertzen¹⁰⁷, bestelako bertute fisikoen artean, oraindik “gazte ta guztizko ederra” (64 or.) zen eta “ogetamarren bat urte inguru eukiko zituan” eta (*idem*).

Botere eta agintari frankoen ordezkoren erantzunak –egia esan, inoiz ez da zehatz jakingo zertara, zein misio ezkututara bidalia izan den Adalbaldo Euskal Herrira¹⁰⁸– ez du zalantzetarako tokirik uzten:

[107] Nabarmena da, berriz ere, gotzain frankoaren manipulazioa ezkontza politikoa lortu ahal izateko. Lehendabizi Adalbaldori esaten dio nolakoa zen Riktrudis: “Riktrudis euskal mendietako aingerua” (67 or.). Gero neskatoari: “Ez eutsan bada Amandok esan [Riktrudisi], Adalbaldo eta bera, Riktrudis, *alkarrentzako jaiorikoak legez zirala, ta biak alkartutea errientzat guztiz ona izango litzatekeala?* Prankotarrak euren nagusi bat euskaldunagaz ezkontuta ikus ezkerro –esan eutsan Amandok– euskaldunai obeto begiratuko deutse; ta *euskaldunak, Arnoldo izen andikoaren alabea ta Adalbaldo bat eginda ikusitakoan, ez dira auzokoen kontra ain amorratuak egongo*” (81 or.; g.l.e.). Alegia, xede politiko-militarra lortua geratzen zen horrela: frankoek euskaldunak hobeto *begiratu*, eta euskaldunek inbaditzaileak *bakean utziko*. Hortaz, franko gaztearen onoidade fisiko-espiritualak tarteko, Riktrudis ere prest zegoen maitasunezkoa ere zirudien ezkontza politiko hartan parte hartzeko: “*Elizearen onagaitik eta errien bakerako, gurasoen gurariko bategaz alkartu bear izan ezkerro, ezkontzeko doskaiñia [safirizioal] bear bazan, ezkondu egingo zan*” (82 or.; letra etzana eta parentesia gureak dira). Gogoratu behar da, Amandoren manipulazio politikoa argiago ikusi ahal izateko, egun bakar bateko ikustaldi hutsean oinarritua zela gazte haien arteko “maitasuna”; Riktrudisek berak aitortuko zuen bezala, Adalbaldo senargaiak “bein baizen ez nau ikusi ta” (127 or.). Eta hori baino okerragoa zena: gurasorik gabe geratzean, zeharo umezurtz sentitzean (ikus XIII. kapitulua) bideratu zuen gotzainak neskatoa ustez maite zuen frankoarekin ezkontzera (XIV. kapitulua).

[108] “Erregek bialdu nau *zeregintxo bategaz* Euskalerriko marra edo mugaraiño” (58 or.; g.l.e.), dio une batean, misterioa gordeaz. Edonola ere, mugetarainokoa baino behar ez zuen eginkizunak ez bide dio eragozten Euskal Herrian barneratzea eta istilutan hastea. Eta zintzoki mintzatuko balitz ere, ezin da ahaztu antzeko aitzakiak erabili ohi direla gerra modernoagoetan ere: “orain, Jaungoikoari eskerrak, baketan gagozalako, ta bake eretian euskaldunak gizon onak dirala dakidalako, zeuri –oso ezaguna zuen Amando gotzainarekin ari da Adalbaldo– agur bat egitea otu jatan, emengo Elizatxoak bide batez ikusiaz. Asmo onetan, baninoian lengo batean Aitzbarrengo

–Jauna, zer esanik ez dago; nik gauza orretan neure indar guztiakaz lagunduko deutsut (60 or.).

Eginkizunak bakea behar duela komentatzean, elizgizonek –ez Amando gotzainak eta ez, antza, Txomin Agirrek ere– espero ez duten egiaztapen bat luzatzen die agintari politikoak erantzun gisa, hots, eleberrian barrena errespetatuak eta begirunez tratatuak bezala azaldu nahi ziren Euskal Herria eta euskaldunak frankoek menderatuta dituztela, kolonia prototipiko baten gisara. Horregatik, bestelako asmo batekin jaurtikia bada ere, merezi du berriz ekartzea Adalbaldo dukearen hitzetan dagoen konstatazio hori¹⁰⁹:

–Nire eskuetan balego, gure artean bakea betikoa izan dedin *euskaldunai emongo neuskioez indarrean malmuzkau ta kendu jakoezan lurrak, itxiko neuskioe buztarri baga, beren lege eta ekanduakaz gura daben eran bizi daitezen*, ta euren adiskide egingo nitzateke (60-61; or. g.l.e.).

Beherago ere berretsiko da frankoaren iritzia:

–[...] Euskaldunak etziran asiko gure kontra gutarrak bakean itxi baleutse euren mendietan (62 or.).

Nolanahi ere den, azpimarragarria da nola botere politikoaren ordezkariak sinesmen eta moralaren arloan egiten duen diskurtsoaren aurrean Elizaren ordezkariak ez duen hitz hoberik.

Esan bezala, zintzoa izateko –halaxe agerrarazi nahi zuen Agirrek– harrigarria diskurtsoa, agintari politiko baten ahoan espero izatekoa ez zena, eta are gutxiago arma-gizon baten ezpainetan, edozein elizgizone-na baino xamurragoa baita, izan ere:

–Nire aldetik, jauna, betikoa izango da [bakea]. Ez naz ni guda-zalea [...] guda batek bere atzetik dakar, laguntzailletzat legez, nekeak, goseak, aserreak, gorrotoak, gurrukak, negarrak eta odol errekek; eta nik, alkarrenganako maitetasuna, zer jana,

Elizara, arrentxo bat egin ondorean zeu non ete zenbiltzan ango Eliz gizonari itauntzeko usteagaz” (58). Geroago ere azalduko da Uztaritze, Kanbo, Azkaine, Sara... aldera daramatela *zereginek* frankotarra (ikus VI. kapitulua), oraintsuago beste hispano-frankotar zenbaiten antzera agian.

[109] Honela mintzatu zaio Amandori lerro batzuk gorago: “[...] bat batera gogoratu jatazan gutarrak euskaldunai egindako lur ostute ta beste dongakeriak” (58 or.).

jakinbidea ta biotz barruko atsegintasuna gura nituke erri guztietan (60 or.).

Eta tonu bakezale berean segituko du ondoko lerroetan ere zeregin sekreturen batekin etorritako arma-gizonak:

–Ez dot nik uste errien zoriona andi izatetik datorrenik, eta bai onak izatetik. Egin daiguzan onak, eta zorionekoak izango dira. Sortu daigun biotzetan batak besteaganako maitetasuna, ta makillak, arriak, aizkorak eta geziak berekauz eskuetatik jausiko jakoez gizon guztiai. Danok dakigu gaiztokeri guztien jatorria non dagon: Jesusen lege bigun gozoagaz aztutean, zeruari gure betiko zorientasun guztien gordelekutzat ez begiratzean. Gizon danak gura dabe euren biotzak eskatzen deutsen gozamenen, ta zeruagaz aztitua bizi badira, lurrari euren bizileku bakarra legez begiratuten badeutse, Jaungoikoaren aginduakaz aztuta badagoz, ez dabe beste enparauen ardurarik eukiko; baktotxak bere gozotaunen gose-egarria bete naiko dau, al daben bidetik, beste anai, lagun ta auzokoai beztun mingotsak iruntsi eragiten deutsezan edo ez begiratu barik. «Ibilli nadin neu ondo, –esango dabe euren kolkorako–bete daidala neuk beste guztiak baiño andiago izateko daukadan gogo beroa, ta nire auziko anaiak ondamuz urtu daitezela nire eskubide ta alizateak ikusirik. Emon daioedan nik neure griña guztia eurak deadarka eskatzen deusten betekadea, ta ondatu beitez, gura badabe, nire geide edo lagun urkoak». Orregaitik saiatu bear dogu Jaungoikoaren bildur donea erakusten, zeru goietan itxaroten daukagun ondo izatea gogoratuten, ta norberarenganako daukagun maitetasun oker ta geiegizkoa gizonen biotzetatik tutarrez kentzen. Olan izango dira errien agintariak errien guraso; mendekoak, seme on maitaleak; eta kristandade guztia etxadi zabal maitagarri bat (61 or.).

Amando gotzaina txundituta uzteko moduko diskurtsoa, bestalde:

–Ederto itz egin dozu, Adalbaldo; *neuk bere geiagorik ez neban esango* (62 or.).

Eta garrantzizkoago, baita etsai euskaldunen buruzagia bera ere lurratuta utziko duena, nahiz eta honek, Arnoldok, negoziazio diruditen orotan bezalaxe, “baina” bat erantsiko dien jarraian onespentitzei:

–Bai, ederto esana dago; baiña parkatu bear deustazu, adiskidea, gogoratuten badeutsut zure erritarrak ez dabela olango erakutsirik burutan artu, nire gomutan beintzat (62 or.).

Diskurtsoari berari, mintzakideei eta eleberriaren hariari ere oro har erreparatuta, argitu gabeko zalantza da zeregin sekretu haren barnean ez ote zegoen, sinesmen sakona baino gehiago, kristautasuna indartzeko eta hedatzeko estrategia diplomatikoa harilkatzera bideratutako errege-agindua eta, behin añaemenditarrak “on” bilakaturik uztean, inbaditzaileen presentzia –kolonizazioa– ere normaldurik ikusarazteko xedea.

Ondoko elkarrizketa guztia –errepikatu beharrik ez dago hemen– agintarien arteko akordiorako bidea besterik ez da.

Ohar bat, dena den: inbaditzailearen trebezia diskurtsiboak kontentziturik, Arnaldo sineskorra izango da defentsarako langak jaitsita utziko dituen:

–Ikusten dot, arrotza, bakotxari berea emoten dakizula (62 or.)¹¹⁰.

Heriotza zela eta, ez zuen buruzagi euskaldunak ezagutuko zer-nolako harreman “orekatuak” eratorriko ziren konfiantza hartatik eta nola biziko ziren aurrerantzean arrotzak eta euskaldunak *Añaemendin*. Eta ezagutu izan balu ere, ez zukeen sinetsiko zer opatu nahi izango zien euskaldunei bake-mezulari otxan haiek igorri zituen frankoen errege Klobis II.ak, gudukatzen jarraitzea erabakitzen bazuten:

–[...] jarraitu nai badabe, *bialduko ditut neure erritar aginpeko guztiak mendira, iñoiz izan ez dan lango triskantza gogor entzungarri bat egin daien...* (156 or.; g.l.e.).

11.- Frankoak berehala ohartu dira euskaldunen agintariak, zaharreneetatik hasita, prest daudela kristautasuna erreferentziatzat hartzeko¹¹¹, nonbait sinesmen zaharrek baino kontsolamendu hobea baitakarkie fede berriak menditar menperatuei. Eta hori gutxi bailitzan, baita etekin

[110] Kasualitatez bezala, esaldi hori bera errepikatuko du gero Amandok “maitetasuna” eta “bihotza” hitz samurrak tartekatuz eta esanahi kristau sakona emanez (ik. 65 or.).

[111] “Sinesmen orrek agintzen deust neure arerioa maitetuteko, ta maitetuten dot, us-tez” (63 or.).

politikoak ere, Arnoldok Euskal Herriari “ostu jakozan lurrak eskatuteko” eskubidea errebindikatzen-edo duenean, Amandoren erantzuna erlijiotik politikaraino irristatzen baita:

–Euskalerrriak ezer galtzen ez dabela. Jaungoikoaren legea zuzen-zuzena da, ta bakotxari berea emoteko agintzen dau. A! Maitetasuna [frankoak maitatzea, alegia] sartzen bada [euskaldunen] biotzetan, bereak eta geiago emongo jakoz auzokoari, gogo guztiagaz (65 or.; gureak dira parentesi barneko azalpen biak).

Erromatarrei betirako gorrotoa izateko zina egin zuen Anibal Barkaren jarraitzaileekin batera errukirik gabeko gudetan zaildu omen ziren euskaldun haien beren¹¹² ondokoan agintari Arnoldoren inozotasunak dagoeneko ez du mugarik¹¹³, Amandoren aipatu hitzek ondokoa esanarazten baitiote:

–Bada orduan, neu izango naz lenengo prankotarrentzat maitetasuna erakusten, arima barruan daukadazan atsekabe guztiak itota. Gaizkiesalaren batek esango dau ez nazala ni euskaldun ona, ta au samintasun barri bat izango da niretzat, bene-benetakoa gero!, besteren batek zoratu egin jatala adierazoten emongo dau; baiña ez da ardura, gure legeak agintzen daben ezkerro. Amando jauna, lagunduko deusut orain artean baiño geiago ta obeto (65-66 or.).

Agerikoa denez, emaitza politiko ezin hobeak dakarzkio erlijio berriak franko menderatzaileari, nahiz eta horretarako, “zergak” ordaintze aldera edo, *koipekeriatan* ere aritu beharko duen inoizka menderatuarekin. Honela mintzo zaio, esate baterako, Adalbaldo Arnoldori:

–Arnoldo zaldun leiñargia [...] itxi bear destazu neure besoetan estutu zaidazan” (64 or.).

Eta areago,

[112] Euskaldunak “gudetan ikusi zeinkez Anibaltarrakaz, aurren aurrenengo beti, edurrez estalduriko mendi *Apeninos* ta *Alpes* deritxenetatik zear, mundu guztiari azurretaraiño ikarea sartuaz” (62 or.).

[113] Interesatuegia, antza, Amandok Adalbaldiri kontatutakoa: “Arnoldo zan, apezpikoa-
ren esanez, gizon burutsu, on ta euskaldunen artean eskubide andikoa” (67 or.).

–Biotz andikoa zara, euskalduna, ta Euskalerrria erri andi bat. Bene-benetan da mingarria zuek ondo ezagutuak ez izatea (63 or.).

Eta aurrerago eta gehiago:

–Maitatuten ditut gizon guztiak, eta erakutsiko dot neureen artean, zein maitagarriak diran nik ezagutu ditudan euskaldunak (66 or.).

–Andiak dira euskaldunak (*idem*).

Euskaldun menderatuaren *koipe-igurzket*a da, halaber, Amando goztainak egiten duena, etsai menperatzailea maitatzeko mezua –mezu politikoa, alegia– barnerarazten dion bitartean¹¹⁴:

–[...] Jangoikoak ekarri zaitue gaur alkar ikusi ta ezagutu daizuen. Biok izango zare nire laguntzailleak emendik aurrerantzean, gizon guztiak bear daben bata-besteaganako maitetasuna erakusten [...] Laguntzat zaukadaz biok gaurtik aurrera, orain artean baiño bere lagun obetzat, eta bat orrek be aldeko urietan, ta beste orrek baso bazterreko txabola ta mendi gaillurretko etxetxoetan, esan bear dozue zeruko oiarzun gozo batzuen antzera: *¡diligite inimicos vestros!* (64-65 or.).

Errepara bekio zuriketa ideologikorako baliatzen den itxurazko simetria-jolasari, “bat orrek” (Adalbardok, alegia) ahalegin gutxi egin beharko baitzuen gerra-aztarnarik gabe eta zeharo kristauturik zeuden behe aldeko hiri frankotartuetan. Benetako lana, lan eskerga, Arnoldori zegokion, izan ere, kristautu gabeko *saltus* delakoa bakean jarri, frankozaletu eta kristautzen lagundu beharko baitzuen.

Ezin ahaztu, bestalde, eleberrian Adalbaldo aspaldidaniko kristaua zela (“maitetuten ditut gizon guztiak” dio berak [66 or.]), eta Arnoldo,

[114] Nabarmenak Amando frankoaren poztasun “erlijiosoa” eta lausenguak Arnoldoren jarrera-aldaketaren aurrean: “Jaungoikoak bedeinkatu zaizala, Arnoldo”, “Jaun zerukoak saritu zaizala” (64 or.). Oro har, Amando dugu *koipe* gehien banatzen duen pertsonaia. Bereziki azpimarratzekoak dira Riktrudisek Adalbardorekin ezkontzera –traizioa burutzera– doala eta, bere burua baretzeko esaten dituenen aurrean Amandok erantzuten dizkionak: “Ondo diñozu, Riktrudis [...] ondo diñozu ta zu ondo zoaz. A! Euskaldun guztiak bide orretatik jarraituko balebe!” (129 or.), “zuk olan gura deutzazu Euskalerrriari; erri guztien gaiñetik dozu maite, zeurea dalako ta erririk onentzat daukazulako. Maite eikezu aurrerantzean bere, maitegarria da-ta” (130 or.).

berriz, ez, eta, hortaz, ikasi egin beharko zuela maitasunaren “agindu” berri hori betetzen.

Baina Amandori bezala, Txomin Agirreri ere egokia eta zuzena iruditzen zaio desberdinen artean planteatutako simetria-jolasa. Eta, jakina, lekuko gisa, adurra dario etsaien arteko gatazka politiko-militar oro kristautasunaren bitartez eta fede zuzenari esker gainditurik ikusten duenean:

Jagi ziran biak [Arnoldo eta Adalbaldo] besoak zabalik, eta bata besteari kontra estutu eben alkar, Amando ta Riktrudis pozezko malkoak gorderik egozan bitartean! Ze laurka ederra! Gizon bizar zuri ainbeste urtekoa, arrazarik zarrenetakoaren aurkeztaria bere egun luzeak prankotarrakaz gudetan igaro zituana, prankotarrak ildako mutil eder maite biren gurasoa, prankotar gazte baten besoetan, biak siñismen batekoak eta itxaropen batekoak ziralako! (64 or.).

Alabaina, nolakoa izango zen egoera haren surrealismoa, ezen Riktrudisek amari gertatutakoa kontatzen dionean, Luziaren erreakzioa, sinetsi ezinik (“Ta neuri [gertaturikoa] aitatu ez” [87 or.]), txundidura hutsezkoa baita¹¹⁵. Birritan gainera:

–Prankotarra Mendiolako Arnoldok bere bularraren kontrari estutu! (85 or.)

–Ta batak bestea bularraren kontrari estutu? (86 or.)

Baina Luziak badaki trikimailuak nondik datozen eta non dautzan. Horrela esaten dio alabari:

–euk biurtu ditun etxe onetako gauzak atzekoaz aurrera [...] euk eroango uanan Amandogana nire senarra (86 or.).

12.- Lan honen luze-laburra dela eta, iruzkintzeke utziko dugu hemen Arnoldoren desprestigioaren kronika, ustezko maiseatze eta esan-mesanak medio, eleberriak gaizki esaka ari zirenen esparrura mugatu nahi

[115] Horretan ere Agirrek dilematzat utzi nahi izan zuen egoeraren motibazioa (“edo ez diñozu egia, edo prankotar ori gizon doneren bat da” [86 or.]), hain zuzen ere, hirugarren aukera bat tartekaturik trilematzat planteatzen zezakeenean erraz asko (hots, “edo aita burutik nahasia dun dagoeneko”, esanez).

izan baitzuen guztia¹¹⁶, gertatutakoaren irakurketa politikoa bera ere maiseaketa hutsaren esparrura baztertuz¹¹⁷.

Baina garai, toki eta “iraultza” baten sinbolo eta ezaugarria izanik, ezin du eleberriak –Agirrek– haren portaera gehiago justifikatu gabe utzi, irakurle gaiztoak erraz asko susma dezake portaera pertsonal zein batzuk baino zerbait gehiago egon daitekeela Auñemendi guztian hedatutako iritzi eta erreakzio orokor hartan. Eta orriak eta orriak emango ditu Arnoldoren portaera zuritu ahal izateko. Honako pasarte etsigaitz hau adibide:

Ai ze atsekabea, ze atsekabea Arnoldorena! Erri zaleegia izan ete zan bildurrez egoan orduan, erri saltzaillea zala ziñoen! Euskalerra saltzaillea. Zein ta bera! Zeiñek asmau eban ain guzur arrigarria? Euskaldunak. Zeiñek siñistu? Euskaldunak (97 or.).

Esanguratsua, orobat, Amando gotzainaren ahalegin ezdeusa, euskaldunak zeharo irrazional bilakatu baitziren:

[Amando] apezpikoaren jakituri ta donetasuna etziran nahikoa Auñemendiko euskaldunen artean sartu zan itsumena kentzeko (90 or.).

Aspergarri samarra litzateke errepikatzea zuritze-saioan oso dela nabarmena narratzailearen esku-hartze ideologiko zuzena, baina Agirrek Arnoldoren portaera behin ere ez du etsaiekiko konplizitate edo traizio gisara hartuko; frankoen aldeko jokamolde hura ikusten ari diren Auñemendiko euskaldunei, ordea, etengabe leporatzen die, ikusi bezala, “itsumena” edo, okerrago dena, berebiziko gaiztakeria.

[116] “Olan gertatu jakon –esaten du Txomin Agirrek– Mendiolako Arnoldori. Andia zan bere izena Auñemendin, Euskalerrari on ugariak egin eutsazan [...] adiskide asko zituan, uste zanez. Baiña usteak ustean gelditu oi dira sarri. Asi ziran jenteak ortik eta emetik bata ta bestea esaten [...] *danak euken Arnoldoren izen garbiari loikeri apurren bat bota bearra*” (88-89 or.; g.l.e.). Eta espero zitekeena Agirrerren hegatsetik: “siñis-men gaiztokoak zirala okerrenak Arnoldoren kontra”. Eta okerragoa, edonola ere, “non ziran orduan Arnoldogaitik arpegia aterako eben *adiskideak? Inondik eztira agiri*” (89 or.; g.l.e.). Auñemenditar gehienak, beraz, Arnoldoren aurkako.

[117] “Batzuk, lotsagaldukoenak edo biotzik baltzenetakoak, [zioten] salkindaria [traido-rea] zala Arnaldo; beste batzuk, alabea ezkonzeagaitik prankotarren adiskide zala” (89 or.; gureak dira parentesiak).

Ohartu, halere, ohartua da Agirre jokabide harekin sortu zaion arazoaz, eta ez dirudi onar dezakeenik euskaldun gehienak berak beatifikatu nahi dituen kolaboratzaileen multzotxoaren aurka egotea. Hori dela eta, eleberrigileak euskaldunen erreakzio sozial haren guztiaren errua ahalik eta gehien indibidualizatzea erabakiko du, eta horrela jakinaraziko dio irakurleari, honek istorioa oker irakurtzeko tentaziorik izan ez dezan:

Nondik baiña urten ete eban Arnoldoren kontrako salgaista oker bidebagakoak? [...] oraingoan badakit nik. *Portun ta Loperengandik etorren dana* (90 or.; g.l.e.).

Badaezpada, aurrerago ere, Arnoldoren morroi izandako Pedro Marik Portuni aurpegiratuko dio guztiaren errua, Ozinbeltzekoak omen zioena egia ez balitz bezala:

-Zuk zabaldu dituzu emen guzurak Euskalerra guztian, zeuk dakizu zergaitik, eta nik bere bai. Zuk esan dozu, guzurra dala jakinda, Arnaldo nire ugazaba, euskaldunik onena, garbiena, leiñargiena ta zintzoena, Euskal Mendiagaitik geien egin dabengizona, erri-saltzaille bat dala; zuk esan dozu, bere alabea ezkontuteagaitik, prankotarraren alde biurtu dala (107 or.).

Eta beste ertzetik ikusita, eta nolabaiteko damu-zauskada sentitu arren, biziki pertsonalizatuko zuen Riktrudisek ere egoera gatazkatsua-
ren errua:

Noizean bein naigabe sakonak izaten zituan Riktrudisek bere biotzean, euskaldun ta prankotarren arteko guda guztien jatorria bera izan zeitekeala gogamenduten jakonean; baiña bere senarrak eta elizgizonak kenduten eutsen burutik bere gogartea, bada, euren eritxiz, Portunek eukazan erru guztiak (155 or.).

Maite du Agirrek Portun madarikatzea, horretarako azken muturreraino eraman behar badu ere pertsonalizazioaren jokoa. Guduei ez baina Adalbaldori amaiera emateko unean ere, Agirrek Portun gaiztoari leporatu nahi izango dizkio gorrotorik sakonena eta azken aizkorakadaren egiletza (ikus 167 or.). Hori bai, ordura arteko bertsioaren gezurtagarri gisara, Menjouleten ohar bat jasoko du ondarrutarrak orripean: “il (Aldabaldo) fut mis a mort par les parents mêmes de Rictrude” (*idem*).

Fikzioaren esparrutik atera gabe ere, zaila zen Portun bezalako pertsonaia bakar batena izatea euskal munduak frankoen aurka mantentzen zituen borroka guztien errua. Hain zaila, ezen eleberriaren bukaera aldean, esaterako, Amando gotzainaren aginduz menditar bateg Ostrabentoko *Erbesteko* kideei transmititu zizkien albisteak gatazka-egoera hedatu batez mintzo baitziren:

Auñemendin ez egoala gizonak baketuteko itxurarik; geroago ta sakoagoak zirala gorrotoak; Jesusen legea gorrotoan bizi ziran arimetan ezin zala sartu (153 or.).

Fikzioak ezin ezkuta zezakeen hagiografiari atzeko oihal gisa zerion Historia larria. Eta Historiak beste modu batez hitz egiten zuen.

13.- Euskaldun frankozaleen portaera zuritzeko ahalegin horretan, me-rezi du auñemenditarrek berezko dituzten hizkuntzaren eta kulturaren errekan Agirrek dagiena ikusteko geldialdi motz bat egitea. Izan ere, protagonista nagusien portaerak babesteko eta haien zilegitasuna hauspotzeko erabiltzen ditu ondarrutarrak euskara eta hartan garatutako kultura eta tradizioa.

Arnoldok heriotzaren atarian dagoela egiten duen aldarrikapenean eta erakusten duen atxikimenduan aurkitzen da planteamenduaren laburpen teorikoa:

[...] euskaldunak alegiñak egin bear ditue, il arteraiño, euren lurra, euren ekanduak eta euren berbeta ederra gordeten (102 or.).

Baina egia da ez dagoela argi zer ulertzen zuen Arnoldok –eta ez, antza, Txomin Agirrek ere liburua idaztean– euskaldunek “il arteraiño euren lurra” gorde behar zutela zioen hura ahoskatu zuenean, ez baitzirudien oso bestelakoa Portunek eta etsaitzat hartu zituen gainerako euskaldunek frankoen kolonizazioaren aurka egin nahi zutenak eta egiten ari zirenak.

Hori bezain ilun utzi zuen buruzagiak, halaber, “ekandu” hitzaren bitartez adierazi nahi zuena, zeren eta aise pentsa zezaketen inguruko entzuleek eta hilburuko-jasotzaileek akulturazio-prozesuaren kontrako jarrera bat seinalatzen ari zela hil-hurrana eta, hura zela eta, *ekandu* haien artean sinesmen zaharrak eta hari jositako errituek, ipuinek, kon-

dairek eta sorkariek berezko lehentasuna eskatzen zutela eta, eskaini ere, eskaini behar zitzaiela.

Eleberriak ezin aratzago aditzera ematen duena, ordea, zera da: Arnoldoren hilondoan, azken testamentu-asmu haiek begiratzearren edo, hizkuntza -euskara- eta alargunaren eta padar koblakariaren eresi tradizioa amiñi bat bederen zaindu zirela, baina ez horrenbeste gainerako ekanduak, Amando gotzain frankoak bideratu baitzituen, *paternosterrak* eta bestelako *latinak* tarteko, hiletok, guztiak erlijio berriaren arabera burutuak gainera¹¹⁸.

Guztiarekin ere, Agirreren ahalegin xahutzaile-leuntzaile horiezaz jabetzeko, askoz ohargarriagoak dira zazpigarren kapitulua (“Euskal Etxea”) eta hamazazpigarrena (“*Erbesteko bizia*”).

“Euskal Etxea” izeneko atala, jakina denez, osorik eskaintzen zaio aipatu zuritze- edo legitimazio-eginkizunari. Eta lehen xedea agerikoa du: Arnaldo eta Mendiolarren enda-garbitasunaren bermea finkatzea, jatorriz zuten zintzotasuna eta leialtasuna azaleraztea, eta bertako ohi-turak eta azturak kutsatu gabeak zirela eta euskal tradizioarekin bat zetozela argi eta zalantzari tokirik utzi gabe erakustea.

Zertxobait sibilinoagoa da bigarrena, baina logika eta koherentziaren itxura eman nahi du edonola ere: etxe hartatik atera edo erator zitekeen guztia -pertsonek, iritziak, jarrerak, ekintzak...- berdintsua zen, berdin zuzena, garbia eta tradizioari lotua. Nola pentsa, beraz, haiek halakoak izanik, haietakoren batek traiziorik egin zezaketenik? nola bestek traiziotzat har haiek proposatutakorik, esandakorik edo burututakorik?

Hango jostaldi, olgeta, ipuin, kondaira (“Aitorren egunetako kondaira egiazkoak”), bazkari... den-dena egiten omen zen Mendiolan benetako euskaldunen eran¹¹⁹.

Bestalde, kapitulu zuritzaile horren urruneko trasunto garbia den “*Erbesteko bizia*” atalari gagozkiola¹²⁰, oso da interesgarria nola ba-

[118] Aldaturik geldituko ziren sinesmen zaharreko ekandu guztiak aurrerantzean. Besteak beste -eta adibide bat baino ez da-, Luzia hildakoan, “Arnoldok eriotzako orduan euki eban kurutzetxoa bere ezpanen gainean eukala” aurkitu zuen Riktrudisek ama (119 or.).

[119] Eta *demokratikoki* (“zar ta gazte, nagusi ta morroiak batera” [74-75 or.]), nahiz eta fede berriaren itxura zuen giroan (“anaitasun jaungoikozkoan” [75 or.]).

liatzen duen Agirrek Riktrudisi herriminak gogorarazten dion guztia (mendiak, zuhaitzak, harriak, soinuak...) santa erbesteratuak abandonatu duen Euskal Herriarekiko atxikimendu sakonak nabarmen distira dezan¹²¹. Antonimoen esparruan legokeen “traizio” hitza zuritze aldera, jakina.

Eta hori zela eta, “Euskalherri txiki bat egin eban Ostrabenton” (148 or.). Frankoen lurraldean, alegia¹²².

Baina ondoren eransten den arrazoiari erreparatu behar zaio lehen baino lehen:

Erbeste ipiñi eutsan etxeari izena, zerren [...] erbetea zan Riktrudisentzat prankotarren erria (idem).

Neskatoa, hara egin arren, handik at bizi omen zen osoki, integratu ezinik nonbait. Baina zerbaitekin konformatu behar ezkon berria, eta “Erbeste”-k Ostrabenton eskaintzen zion txertatze fisiko haren barnean antolatu zuen Riktrudisek behin-behineko “Euskalherri txikia”.

Nolanahi dela, atzean utzitako herriarekiko atxikimendua eta leialtasuna ezin ahantzizkoa zela adierazteko, “guztiz ondo ta Euskaldun bizi zan” (*idem*) eraiki berri zuen jauregian. Hots, gizakiak berezkoen duen ezaugarriari –mintzoari– zeharo atxikia, batetik, baina batik bat “Euskaldun bizitzea” hizkuntzaz haratago doan bizimodu oso eta zirrikiturik gabeko bat dela oroitzuz,

[120] Santa euskaldunak bere “Euskal Etxean” edoski eta barneratutakoaz inolako zalantzarik gera ez dadin, honela hasten da kapitulua: “Riktrudis Adalbaldoen etxadian [erbestean, beraz] prankotar emakumeai onekandu guztiak erakusten bizi zan” (147 or.).

[121] Aldi baterako abandonatu, halere, ez betiko, Agirrek hain ongi ezagutzen zituen topikoei jarraikiz, barkaezinezko traizioa baitzatekeen arrazoi bategatik edo bestegatik atzerriratutako euskaldun batek Euskal Herrira itzultzeko asmorik ez izatea. Auñemendira bakean itzuli bitarteko behin-behinekotasun horretaz mintzo zaio Adalbaldo emazteari Ostrabenton daudenean: “Zu ta ni, Riktrudis, -jarraitu eban andreari begira- *ementxe biziko gara bitartean*, ekarri dituzun aide ta etxadikoakaz batera, Jaunaren legea gordez ta gorde eragiñaz, arrenetan beti [...]” (137 or.; g.l.e.).

[122] Ostrabentora joatea traizioarekin lotua zegoen heinean, hura ere zuritzeko premian aurkitzen da Agirre. Oso modu bitxian, halere. Hona Uberoren baieztapenari (“Beti da txarto Sorterritik kanpora arerioakana joatea”) Amandok/Agirrek emandako erantzuna: “Zertara joaten dan. *Sorterriarentzat lagunak egitera* joaten bada ez beintzat” (141 or.; g.l.e.). Riktrudis euskaldunen enbaxadore nonbait.

Euskeraz itz egiten zan beti *Erbesten*, euskeraz arren, euskeraz erestu, Euskalerriko ipuiñak esan, euskaldunen ekanduakaz bizi, euskaldunen gisara jantzi... Arkaitz ta mendiak etziran agiri eze, beste gauza guztiak euskaldunak ziran *Erbestean* (148 or.).

Barrea eragin lezake, ziurrenik, frankoen gortean bizitzera joan zen neskatoa, Auñemendikoen antzera, larruekin jantzita eta mendi arteko “ekanduak” gordetzen imajinatzeak¹²³, baina Agirrek erabateko euskalduna jarri nahi dio irakurleari begien aurrean, betegina oso, bere Herriari inolako traiziorik ezin egin diezaiokeena. Ikus, adibidez, nola mintzatu zitzaion euskal santa Amando gotzainari “ezkontzarako berbea emon ebanean”:

–Naroian lekura naroiara patuak edo Jaungoikoak, euskalduna eroango nau, euskaldun biziko naz beti toki guztietan. Neugaz joango dira erririk erri, «euskal mendia, bere izkerea ta bere ekanduak» Euskerea erakutsiko dot nunnai, nire erritarren lege zarra adierazoko dot, al dodan giñoan. Nire gomutea, nire adimena, nire biotza, nire izakerea, euskaldunarenak izango dira beti; ta edozein tokitik, nire begiradarik gozoena neure mendientzat izango da, ta nire arrenik bero, sutsu ta onena euskaldunentzat eta euskeraz egiña (144 or.).

Honetara iritsita, azpimarra dezagun munta handiko puntu bat.

Agirrek traizioaren inpresioa ezabatzeko burutu nahi duen zuritze-lanean hizkuntzak du lehen mailako garrantzia. Esate baterako, Amandok Uberori Auñemendik ez duela Riktrudis galduko esaten dionean, nabarmen uzten ari zaio zertan datzan neskatoaren leialtasunaren gako:

–[...] Euskalerriko alabea, euskera zalea ta euskara zabaltzaillea izango da edonun (144 or.).

Zuritze-hitz eta aldarrikapen hanpatuen azpitik zerion bizitzak, dena den, beste zerbait adieraziko zuen gero. Eta narratzaileak “euskeraz itz egiten zan beti *Erbesten*” (148 or.) ohartarazten bazuen ere, agerikoa zen ezin zela hura egia izan. Are, ez zela, izatez, egia, berehala

[123] Dena den, ez dirudite ekandu horien ildokoak Riktrudisek seme-alabei jarritako izenek: Mauranto, Klotsenda, Eusebia eta Adalsenda (154 or.).

aitortzen baitzaio irakurleari “Euskalerriko guda ta kurruketatik igeska” edo “gudetan zaurituriko” prankotarrak jasotzen zituztela Adalbaldok eta Riktrudisek jauregian (149 or.) eta “inguruan etxekorik geienak prankotarrak esaten zituen gudako gertaerak entzuten” egoten zirela.

Nahi bezain barkagarriak izan arren, kontraesan gisako horiek bistan jartzen dute Agirrek eskuarki eleberriaren bide paralelo batetik joango balitz bezala hartu ohi duela hizkuntzen arazoa.

Hortaz, argitzen-edo duen kontu bakarra euskaldunen arteko elkarriketa-mintzairarena da eta inoiz edo behin, haren parekoa zen frankoen artekoarena¹²⁴. Gainerakoetan, nahiago du behin ere argi ez uztea euskaldunen eta frankoen arteko harremanak zein aharantzatan burutzen ziren oro har¹²⁵, eta are ilunago utzi nahi izaten du Auñemendiko okupatzaileen eta inbadituen arteko harremanen hizkuntzarena¹²⁶, nabari baita Agirrek ez duela oldoztu ere egin nahi frankoen kolonizazioak eta erlijio berriak dakartzaten akulturazio-efektuez, eta are gutxiago baldin efektu horietakoren bat hizkuntzaren –hots, euskararen– gainbeherakada izan badaiteke. Agirre, izan ere, bai bizitzan eta bai fikzioan zinez baita euskaltzalea eta euskararen arazo soziolinguistikoak kezkatzen duen gizona. Baina, dirudienez, sinesmenen eta ohituren bestelakatea ikusarazten ez dioten betaurreko erlijiosoek berek lausotzen diote hizkuntz errealitatearen arriskuaz ohartzea.

Dena den, frankoek Euskal Herriko lubakietan euskaraz mintzatzeko lortzen zuten gaitasuna gora eta “Erbeste”-n beti euskaraz zihar-

[124] Frankoak “euren izkuntzan” (57 or) mintzo ziren haien artean, Amandok Adalbaldo dukea Auñemendi aldean lehen aldiz ikusten zuenean bezala.

[125] Oraintxe bertan ikusi ditugu Ostrabentoko Euskal Etxean suertatzen ziren batzaldi bitxiak, non, frankoen hizkuntzan burutuko zirela pentsatu arren, ez baita ezer argitzen.

[126] Amandori bere elizgizon-aztura ateratzen zaio inoizka, eta latinez mintzo da, baita oso beharrezko ez denean ere: “*Pax hic domini, et omnibus habitantibus in ea*” (101 or.). Dena den, ez dirudi soziolinguistikako esku-liburu askotara hurbildu beharko litzatekeen inbaditzaileen hegemonia linguistikoa –ere– noraino iritsi zitekeen irudikatzeke. Amandoren hizkuntz trebetasunak direla eta, Menjouleten hipotesia da egiantzekotasun gehien duena, egin zuen lehen bidaian zekarren hizkuntz mailari dagokionez bederen: “probablement accompagné de quelques moines, qui connaissaient la langue du pays, il entra dans la terre des Vascons” (1869, 20). Berrogei urte inguru bide zituen ordurako, eta, Auñemenditik alde egin aurretik, hogeita hamar bat hilabete besterik ez zuen egin euskaldunen artean. Riktrudis kristauen artaldera eramateko aski, dirudienez, baina ez horrenbeste ustez euskaldun elebarkar ziren Arnaldo eta besterekin jariatasunez –edo itzultzailek gabe– komunikatu ahal izateko.

dutenen frankofono-maila behera, Riktrudis euskarari atxikia bizi dela adieraztean Agirrek haren leialtasun irmoa erakutsi nahi du, eta aldi berean, Riktrudisek ez zituela inolaz ere merezi “euskaldunak bere kontra artu zituen neurriak, eta Auñemendiko aideak esaten zituen gauza okerrak” (147 or.) aldarrikatu, funtsik gabekoak omen baitziren hura bezalako euskaldun peto bati leporatzeko.

Hizkuntzen erabileraren atal honetan bada, azkenik, ohargarri izan litekeen beste puntu bat, Agirrek gatazkaren muinean jartzen duen aitzakiarekin ezin estuago lotua dena, baina azalpenik gabe utzi arren esplikazioren bat beharko lukeena.

Izan ere, Adalbaldok Portunekin izan zuen aurreneko iskanbila ospetsu hartan –gero ondoko gudu-nahi eta gorabehera odoltsu guztien motorra izango ei zena– zalantzan da noraino ulertu zuen franko iritsi berriak bertako gazteak euskaraz –ez bide zekien besterik– esan ziona, eta noraino ez ote zuen gero Adalbaldok Portun bera iraindu erabili zuen hizkerarekin –frankoera? latin mordoiloa? sasieuskara?–. Hizkuntzaren balioaren abstrakzioa –hobe, ukazioa– egiten da eleberriaren unerik erabakigarrienean, hau da, arerioen arteko komunikazioak berebiziko garrantzia duenean eta guduari ekiteko erabiliko diren ustezko gorrotoak eta aitzakiak sortzen diren unean bertan.

Eta egia esan, ideia sakon askoak edo ez hain erraz adierazteko eta ulertzeko modukoak –lehiakide haietako batentzat deus ere esaten ez zuen fedeari buruzkoak, bestalde– trukatu zituzten euren artean¹²⁷.

Baina ez da horretan amaitzen arazoa.

Harrigarriena narratzailearen ikuspuntuaren enpatia-asimetria da. Hori dela eta, kanpotar kristaua irainduta sentitu omen zen Portunek esandakoagatik, baina Portunek ez omen zuen erdeinua sentitzeko eskubiderik izan bere betiko eta bertako sinesmen zaharrak –animistak, panteistak, politeistak edo zirenak zirelakoak– hankaz gora botatzen zituen baieztapena entzun zuenean, hots, “Jesukristo da Jaungoiko egiazko bakarra...” (58 or.).

[127] Ezin ahantz daiteke Adalbaldok frankoarena dela eleberriak gatazkaren muina haitzatzeko onesten duen testigantza bakarra (ikus 58-59 orrialdeetan).

Jakina, elkarren artean ulertu ala ez, Portunek kontrako baieztape-na jaurtiki zion, orduko edozein menditarrek kanpotar azpiratzaile bati jaurtikiko ziona baino ez, hain zuzen:

-[...] Zure siñistea ta zure gisakoena guzurra dala diñotsut, guzurra Jesukristo ta guzurtokiak zuen Elizak (58-59 or.).

Eta inflexio-puntu bihurturik, une hartan hasi zen, Agirre elizgizonearen eskutik ehunduta, holako edo halako hegemonia duen ororen jolas asimetrikoa, orrialdeetan barrena eleberriratutako hagiografiaren xede nagusia –kristautasunaren lehentasunarena– perfilatzeraino eramango zuena, harekin uztarturik zeuden inbaditzaile frankoaren kolonizazioa eta akulturazio-prozesu larria hutsaren hurrengoa bailiran alboratuz.

Logikoa, beraz, bere burua inbaditurik, kolonizaturik, bestek irentsirik atzematen duen Herriari eman zitzaion mezuaren azken korolariora –aholku– lasaigarria:

–Kristinaua baziña, jakingo zenduke eroapena zer dan, kuru-tzea maitetuko zenduke, ta lurreko zorientasuna trukauko zenduke zerukoagaitik (110 or.).

14- Deskolonizazioa kolonizatuta gaudela ohartzean hasten dela dioen tesia Txomin Agirrereren habian egiaztatzerara joan baledi inor, lumatu samarturik atera liteke segidan, zinez onartu beharko bailuke aurrenik aski ohartua zela ondarrutarra garaiko errealtate latzaz, eta halaz ere begirada lauso eta bestelakatuarekin ekin ziola eginkizun narratiboari eta, okerrago dena, era berdintsuan amaitu zuela bere buruari jarritako erronka hura. Lerroalde honetako hasierako hitz larri horiek berarekin ez balihoaz bezala.

Izatez, Agirrek –esango luke, hipotesirik balego, urrikalkorrenek ez zuen eleberriak *gatazkari* buruzko hausnarketan sakontzeko eskaini zion aukera baliatu nahi izan. Eta arrazoia ez zetzan, diogun berriro ere, Zumaiako paradisu lasaitik haratagoko errealtateaz ez jabetzean, begien hondoan ezarriak zituen borondatezko dioptrietan baizik¹²⁸.

[128] Dioptria ideologikoak eta erlijiosoak, alegia. Hortik, gero, sor zitezkeen eragozpenak gainditu ahal izateko, añaemenditar zaharren eta añaemenditar berrien egoera politikoak formulazio simetrikotan planteatzearena. Agirrek, esaterako, bere egiten ditu

Eta irudi du –segituko luke hipotesi onberak esaten– behialako auzñemenditarrak bezain motz eta interesatutzat¹²⁹ dituela Agirrek bere garaikide euskaldunak ere, eta uste duela azken hauei kalte besterik ez liekeela ekarriko jasaten ari ziren errealitate gordinaz ohartarazteak.

Zaila zuen, bestalde, inguruko mundutik zetorkiokeen irakurleria indartsuena kristaua eta erlijioidea bai, baina ideologiaz nagusiki arantista zuela ez ikustea; eta are zailago oraindik –eta une haietan bereziki!–, beste *errelato* mota bat, errealitatearekin objektiboki estuago uztartua, eskatzen ari zitzaioa ez ikustea.

Baina Agirreren eskema beste bat zen, karlismoaren ikuspuntuetatik inolaz ere aldentzen ez zena, eta horregatik geratu zitzaion hain agerian eleberrian, kristautasunaren osagaia lehenetsiz, ideologiarena lausotzearena. Nonbait politikoki urrun sentitzen zituen posizioetaraino iritsi ahal izateko. Lortu ez bazuen ere.

Egiaztatzeaz geldituko litzateke, ordea, ea zenbateraino baloratu zuen areagotuz zihoan esparru ideologiko haren jokamolde antikolonialistaren ahalmena eta noraino, erlijioaren indarrarekin estaliko zuela-koan edo, gutxietsi zuen.

Balegoke, bestalde, jorratu beharreko beste hipotesi-muturrik ere, ondarrutarrarekiko gupida gutxiagokoa beharbada, eta Aranaren mun-

Amando gotzainaren hitz berdintzaileok: “Ez da gauza on bat Erri bi baketutea?” (142 or.). Eta ustezko simetria horretan –harrigarriki– franko inbaditzaileak izan omen dira baketze-lanari heldu dioten lehenak: “Ta era orretan –uste neban nik [Amando mintzo da, Risktrudis eta Adalbaldoren ezkontza dela kari]– ainbeste gizardian gorrotoz bizi izan diran Dierr biak adiskidetu leitekez... Nire usteak, Ubero –jarraitu eban apezpikuak– nire usteak prankotarren aldetik beteten asi dira” (*idem*). Eta errua euskaldunena da: “Zeuek zara [=zarete] Adalbaldo [etsai frankoa] ezagutu ez dozuena. Ez dozue ezertarako astirik artu. Ozinbelzko gizon gorrototsuaren deardar ta izutaldiak entzunda tora goraka jagi zara [=zarete]” (*idem*). Eta areago: “Gizon on batek, Padarrak esaten eutsuen egia ez dozue aitu gura izan [...]; itsutuak zagoz [=zaudete] danok, eta Jaungoikoak bakarrik daki zuen gaiñera zenbat kaltek etorri bear daben” (*idem*).

[129] Irudikatzen dituen buruzagi intelektualki bizkorrenak ere ez dira zama horretatik libratzen. Nabarmentzeko modukoa, esaterako, Uberoren –hots, lehen frankoen alde eta gero kontra dagoen kristau euskaldunaren– ezpainetan Agirrek jartzen duen argudioa: “Maite diran gazte bi alkarregaz ezkontuteari, euren ta Errien onerako bada, ez deritzot txarto, zuri [Amando/Agirre elizgizonari] entzun ta gero; baiña euskaldun baten aberastasun, etxe ta lurak prankotarren eskuetan gelditzea, beti da euskaldunentzat gauza kaltegarria” (143 or.; ikus, halaber, buruzagia “haurtua” erakusten duten ondoko lerroak).

duari hark, kristau-begien aurrean ezarriak zituen betaurreko karlistak jantzita, erantzun politiko garbia eman nahi izan ziola berretsi lezakeena. Mezua, aratza: garaile dituen etsaiekin adiskidetu behar du beti fededunak, euskalduna izan arren, eta kolonizatua sentituko balitz ere.

Egiazkoa izatekotan, korolario argia eta xumea izango zuen aukera horrek eleberriaren irakurketan, Txomin Agirrek erabat legitimatuko baitzuen kolonizazioa, Historiari naturalki egitea legokiokoen beste urrats bat bailitzan edo.

Eta ondorioak zituen horrek, jakina, bizi-biziak eta latz samarrak gainera, eta batik bat behialako *Auñemendi* gatazkatsu hura Agirrerren garaira transferitzean edo paralelismoak bilatu nahi izatean. Batetik, anaien arteko maitasun kristauaren aldarripean, gaitzetsi egiten zelako inbaditzaile arrotzaren kontra altxatzea, eta horrekin batera, haren aurkako borroka oro deslegitimatzen. Bigarrenik, beste mundu zoriontsuaren agintzaria –edo, kasurik txarreanean, erresignazio kristaua– lagun, kolonizatzaileekin ongi eta fraternalki konpontzeko mezua zabalitzen zelako.

Eta hori guztia, diogun berriro ere, “euskalduna” edo izan zitekeen identitatearen beraren gaintik, hura ezabatu nahirik eta, betiere, ezartzen zen kristau “nortasuna”-ren izenean, zeharo ahantzita eta ahantzarazita euskal munduaren akulturazio faktore ezin eragingarriagoa izan zela gainezarritako nortasun hura.

Horren aurrean, liburuak irakurlerik izan balu, eta batik bat euskaltzale kritiko edo militante ideologizatuen sektorekorik –eta susmatzekoa da horrelakoa izango zela eleberrira hurbilduko zen gehiena–, zalantzazkoa zatekeen ea irakurketatik ateratako ondorioek egiatan lagundu(ko) ote zuten liburuaren zabalkuntzan eta arrakastan.

Uste izatekoa da –uste hutsetan geratu behar, ez baita hipotesia berretsi dezakeen testigantzarik– garaikide askorentzat ez zela Agirrek berak “noveluca” eta “pobre hijuela mía” zeritzon hartan, euskara hutsezkoa izateak eman ziezaiokoen balioaz gainera, erakargarri gerta zitekeen bestelako amurik, ez eta sintonia ideologikorik ere, erlijioaren esparrutik etor zekiokoenetik at¹³⁰.

[130] Ideologikoki hain konplexuak eta arazotsuak ez ziruditen gaiak garatzera hurreratu zen Agirre ohitura-eleberrietan, hurbileko garaikideen pentsamoldeekin talka egin zezaketen osagai ideologikoak gehiago lausotuz eta margulduz, eta elkartze-puntu

Eta horrexegatik, hain zuzen, ez da erraz ulertzen nola ireki zitzaizkion hain azkar *Auñemendiko Loreari* argitaratua izateko ateak. Azkuek –apaiz ideologizaturik egotekotan, huraxe baitzen une haietan *batzokia*-ren ateetaraino iritsi zirenetako bat– egilearekin zuen adiskidetasuna arrazoi bat izan daiteke, jakina, baina XIX. mendearen amaierako kultur basamortu hartan euskarazko lehen eleberri mardula izatean bilatu beharko litzateke benetako zioa. Horretan eta, noski, hain antzu eta soildurik genuen baso narratibo haren faboretan jokatzeko hasteko premian, zinez espero bide baitzuen *Euskalzalek* –Azkuek– hurrengoak akuitu eta eredu bilaka zitekeela Agirreren ahalegin hura¹³¹. Atzendu gabe, agian, inguruko kristau “argi laburreko” mogeldar haiei¹³² eleberria bezain bide moderno batetik iritsaraz zekiekeen bazka espirituala banatzeko beharrezana.

Ez dirudi, horratik, Azkue moduko gizon bizkor eta zoli bati nobelak kilika lar eragin ziezaiokeenik¹³³, batik bat ordurako *Vizcaytik Bizkaira* eta *Sasi-eskola* bezalako lan ideologiko ausart-gordinak idatziak zituela gogoratzen bada, eta batez ere, Agirrek eleberrian garatzen duen tesia hain politikoki extenporaneo eta retrotopikoa zela ahazten ez bada.

Azkentza

Artikulu honen lehen atalean mahairatutako galderari berriro hel bageniezaie, luze segi genezake oraindik solasean, Agirreri bizitza erreala irensten bide zion apaizgoagatik atxikitako mantra erlijiosoak eta harekin sintonian nahi zuen ideologia politikoak nekez lagun baitziezaioketen haie(ngati)k sorrarazitako kolonizazio-akulturazioaren ara-

izan zitezkeenak indartuz. Eta akaso hori ere zela medio –hizkeraren erabileran eta “ofizioan” irabazitako eskarmentua ahaztu gabe– gertatu ziren gero arrakasta gehiagoz jasoak eta irakurriak –Lhandek *dixit*- *Kresala* eta *Garoa*, hala irakurle xumeen artean nola adituagoen artean.

[131] Eta halaxe suertatu zen, harrezkero nobelagile bilakatu baitzen ondarrutarra hitzaren esanahirik, diogun horrela, osoenean.

[132] “Jende argi laburreko”-tzat zituen *Peru Abarkaren* egileak euskal “nekezale, behargin, atxurlari, olagizon, ikazkin, emakume gorula, ehula, jostuna ta honelako jende meta bekokiko izerdi larriarekin ogia bilatu behar dutenak”. Edo zehatzago, zalantzarik gera ez dadin, “gure euskal herrietako gizon ta andra, neskatx ta mutilik gehien-gehienak dira, jakituriaren aldetik, haurtxoak bezala” (ik. Salaberri 2004, 123).

[133] Apaltasunak apaltasun, hori bera uste zuen Agirrek honako hau idatzi zionean: “ Si, como presumo, no te gusta la noveluca [...]” (ik. Gartzia Trujillo 2008, 36).

zoan burua barneratzen edo, behinik behin, haien efektu bestelakatzai-
leen larriaz erreparatzen.

Guztiarekin ere, egileak eleberrian *esaten duena* arakatzen saiatu
gara hemen. Eta argi da ideologikoki gogoan zuenaren ildokoa dela,
bete-betea, itzuri zitzaiona eta idatzi zuena, hein batez espero ez zuen
adarren bat, oharkabea edo lar kalibratu gabe, sortu izan bazitzaion
ere.

Gaitza eta hitsa, halere, Agirre gazteak bere buruari bizkarreratu
zion erronka. Gaitza eta hitsa, zeren eta, azken batean eta idazle gisa
bederen, ez baitzien XX. mendearen hasierako euskaldunei garaiak la-
zkaz eta gatazkaz behar zuen *errelatoa* zuzendu, eta bai, ordea, hagiogra-
fia izateari ezin utzirik, euskal munduaren kolonizazioa eta are akultu-
razioa zeharo legitimatzen zituen narrazio latz eta lakar bat igorri.

Nolanahi ere den, badakigu *Auñemendiko Lorea*arekin beste arratsen
bat gehiago igarotzeak ez lukeela erabat agortuko zalantza eta kezken
zerrenda, baina ziurra da lagun lezakeela aske utzitako lokarriren bat
edo beste lotzen. Baina hori guztia, esan bezala, beste arratsalde batera-
ko utzi beharko da.

Auñemendin, hurrengo egunean

Aipatutako bibliografia

Agirre, Tx., 1898: 1986, *Auñemendiko Lorea*, Bilbo.

———, (S. Onaindia, biltz.), 1964, *Ondarrak*, Bilbo.

Arana Goiri, S., 1897, *El Partido Carlista y los Fueros Vasko-Nabarro*. (*Polémica*),
1897.03.28, Bilbo.

Azkue, R.M., 1923, “Agirre, beretergoan”, in *Itzaldiak. Bigarren salla (Euskal Eснаlea*
agerkarikoa), Donostia, 67-80.

Azurmendi, J., 1979, *Arana Goiri-ren pentsamendu politikoa*, Donostia.

———, 1992, *Espainolak eta Euskaldunak*, Donostia.

———, 2017, *Hizkuntza. Nazioa. Estatua*, Donostia.

Etxegarai, K., 1898, “*Auñemendiko Lorea. Itzaurrea*”, *Euskalzale*, 1898.01.13, 12-13.

- García Gual, C., 1999, “Luces y sombras. Novela histórica y biografía apologética”, in *Sobre el descrédito de la literatura y otros avisos humanistas*, Barcelona, 148-162.
- Gartzia Trujillo, S. (arg.), 2008, *Txomin Agirre. Gutun bilduma*, Bilbo.
- Giussani, L., 2007, *Curso básico de cristianismo*, Madrid.
- López Antón, J.J., 1996, “El debate sobre el *izendegi* sabiniano. Una visión retrospectiva de la cultura vasca en 1907”, *Sancho el Sabio* 6, 137-154.
- Marko Aurelio, *Meditaciones* (itzulp.: R. Bach Pellicer, 1977, Madrid).
- Menjoulet, 1869, *Saint Amand, Apôtre des Basques*, Auch.
- Navarro Cabanes, J., 1917, *Apuntes bibliográficos de la prensa carlista*, Valencia.
- Pavese, C., 1946, “Il compagno”, *L’Unità*, Turin, maiatzaren lehena.
- Salaberri, P., 2004, *Euskal Klasikoen atarian*, Iruña.
- , 2016, “Hagiografia eleberrirantz erroizten hastean (Arratsalde bat Auznemendiko Lorearekin I)”, *Egan* 69/1-2, 129-162.
- Updike, J., 1961, “A&P”, *The New Yorker*, 1961.07.22